



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

**CELSO RODRÍGUEZ PADRÓN, BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU
NAGUSIKO IDAZKARI NAGUSIA,**

**ZIURTATZEN DUT: BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIKO
OSOKO BILKURAK, DATA EGUNEKO BERE BILERAN, BULEGO
JUDIZIAL BERRIAREN EZARPENERAKO LEGERIA PROZESALAREN
LEGE AURREPROIEKTURAKO TXOSTENA ONARTU DUELA.**

I

AURREKARIAK

2008ko uztailak 30eko datarekin, Bulego Judizial Berriaren ezarpenerako legeria prozesalaren erreformari buruzko Lege Aurreproiektuko testuak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko (BJKN) Erregistroan sarrera izan zuen, halabeharrezko txosteneko igorpenaren arabera.

2008ko irailak 30 datarekin txostengile bezala Margarita Robles Fernández Bokal Andre Gorena izendatua izanik, Ikerlan eta Txostenen Batzordeak 2008ko urriak 10 datako bere bileran, aurrean dugun txosten hau onartu zuen, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Osoko Bilkurara bere igorpena erabakiz.

II

BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN KONTSULTA FUNTZIOAREN GAINEAN HAUSNARKETA OROKORRAK

Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiari kontsulta funtzioaren jarduera



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

espresuki ematen dioen araua Botere Judizialeko Lege Organikoaren 108.1 e) atala da; konkretuki, lege honetako gainontzeko 108.1 artikuluan adierazitako beste gai batzuen artean, Estatua edo Autonomia Erkidegoak guztiz edo partzialki eragiten dituen lege aurreproiektu eta xedapen orokorretaz informatzearen ahalmenari buruzkoa da, *“arau prozesal edo Auzitegi arruntan aurrean Oinarrizko Eskubideen jardutean babesaren aspektu juridiko-konstituzionaletan eragina dutenak eta Epaitegi eta Auzitegien eraketan, antolaketan, funtzionamenduan eta gobernuan beste edozein eragin mota dutenei buruzkoa”*.

Lege maila duen xedapen hau aintzakotzat hartuz, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari honek ematen dioen txosten ahalmenaren garrantzia eta zentzuaren interpretazio egoki bat eginez, igorritako Aurreroiektuari buruz ematea dagokion iritzia bertan espresuki barne sartzen diren funtsezko arau edo prozesuzko arauetara mugatu beharko da, Botere Judizialari edo honen esku dagoen funtzio jurisdikzionalaren jarduerarekin zerikusirik ez duten gaien gainean edozein hausnarketa mota eragotziz.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, bere txosten ahalmenaren esparrua mugatzen etorri izan da, aipatutako Botere Judizialaren Lege Organikoko 108.1. e) artikuluan zehazten den material esparruarekin hitzez hitz bat etortzen den alor zorrotz baten eta Botere Judizialaren gobernuko organo konstituzional bezala, Kontseiluaren posiziotik ondorioztatzen den alor zabalago baten arteko ezberdintasuna abiapuntu gisa hartuz. Hau dela eta, lehen esparruaren barruan eman beharreko txotena, lehentasunezko izaera batekin aipatutako manuan aurrez kontuan hartuak izan diren gai ei buruzkoa izan beharko da eta gutxienez, izaera orokor batekin, Botere Judizialeko Lege Organikoaren aipatutako 108. artikuluan barne sartuak ez dauden gai guztietan Aurreproiektuaren edukiari buruzko hausnarketen adierazpena baztertu beharko du. Zabaldutako esparruari dagokionez, esatea dago Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak oinarrizko eskubide eta askatasunak eragiten



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

dituzten Aurreproiektuko aspektuei buruz bere iritzia ere adierazi beharra duela, Konstituzioko 53. artikuluko xedapen espresuaren bitartez daukaten maila nagusiagatik eta berehalako eraginkortasuna izateagatik. Puntu honetan, bereziki Konstituzio Auzitegiaren erabakiak, Konstituzioaren interpretatzaile gorena bezala, abiapuntu bezala hartuz hasi beharra dago, zeinen mota guztietako prozesuetan emandako ebazpenak manu eta oinarri konstituzionalen interpretazio zuzeneko iturri diren, epaile eta auzitegi guztiak lotetsiz. Aurreko honetaz gain, organo konstituzionalen arteko elkarlan printzipioarekin bat, Botere Judizialaren Kontseilua bere txostenetan beste hausnarketa batzuk egiteko aukera adierazten etorri da, hauek, bai teknika legegile hutsei edo gai terminologikoei buruzkoak, testu arauemaileen zuzenketa hobetzera laguntzeko asmoz, bai prozesu judizialean bere aplikagarritasun eraginkor eta eraginari buruzkoak, zeren eta organo jurisdikzionalak dira azken batean, gero dagozkien arauak praktikan aplikatu behar dituztenak hain zuzen ere.

Aurrekoaren ondorioz, txostenak jasotzen duen Aurreproiektuaren helburuaren arabera, hau, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren bitartez informatuak izan behar diren gaiei dagokionari mugatuko da, aipatutako esparru zorrotzaren perspektibatik, kasua denean, alde batera utzi gabe testuko teknikaren hobekuntzaren onerako beste hausnarketa batzuk egin ahal izateko aukera.

III

AURREPROIEKTUAREN EGITURA ETA EDUKIA

1. Txostenak jasotzen duen Aurreproiektuak lau ataletan eta hamabost artikuluko eta hiru azken xedapen dituen testu batean banatzen den Zioen Azalpen bat du (hemendik aurrera berau ZA deituko duguna). Artikulu bakoitza,



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

salbuespen bakan batzuk salbu, bere aldetik ere atal ezberdinetan banatzen da, eta hauetako bakoitza arau legal zehatz baten aldaketa, indargabetze edo sarrerarekin bat dator (artikulua edo xedapena). Artikuluen antolaketak erreformari lotuak dauden legeen promulgazioaren ordena kronologikoa jarraitzen du, berak izan dezakeen garrantzi handiagoa edo txikiagoa kontuan hartu gabe.

2. Ondoren azaltzen den Aurreproiektuaren egitura derrigorrez laburra izan behar da, barne hartzen duen gaiaren zabaltasuna dela eta, berau hain zuzen ere eragina duten bederatzehun lege maila duten xedapenetan garatua, eta bere edukiaren azalpen zehatzago bat, aurrean dugun Txosten honetako beste leku batzuen betekizuna izanik.

Lehen artikulua Prozedura Zibilaren Legea hamabi ataletan aldatzen du, 1881eko otsailak 3an Errege Dekretu bitartez onartua eta epaiketa aurreko adiskidetzeari buruzkoa berau, Prozedura Zibilaren urtarrilak 7ko 1/2000 Legearen xedapen indargabetzaile bakarra indarrean mantendu zuen gaia hain zuzen ere, Borondatezko Jurisdikzioari buruzko Lege berri bat indarrean sartzea eman izan arte.

Bigarren artikulua 1882ko irailak 14ko Prozedura Kriminalaren Legea aldatzen du, guztira ehun eta laurogeita hamalau ataletan.

Hirugarren artikulua 1946ko otsailak 8ko Hipoteka Legea hamabi ataletan aldatzen du.

Laugarren artikulua hipoteka higigarriari eta edukitzaren lekualdaketarik gabeko bahiari buruzko 1954ko abenduak 16ko Legean arreta jartzen du eta aldaketa bi atalekin osatzen da.

Bosgarren artikulua martxoak 21eko Estradizio Pasiboari buruzko 4/1985



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

Legea bost ataletan aldatzen du.

Seigarren artikulua uztailak 16ko Kanbio eta Txekeari buruzko 19/1985 Legea atal soil batean aldatzen du.

Zazpigarren artikulua Patenteei buruzko martxoak 20ko 11/1986 Legea bi ataletan aldatzen du.

Zortzigarren artikulua apirilak 7ko 2/1995 Legegintzako Errege Dekretua aldatzen du, honen bitartez Lan Prozedurari buruzko Legearen testu bategina ehun eta hirurogeita sei ataletan onartzen delarik.

Bederatzigarren artikulua, indarkeria izan duten biktimei laguntza eta sorospeneri buruzkoa den eta askatasun sexualaren aurkakoa den abenduak 11ko 35/1995 Legea atal bakar batean aldatzen du.

Hamargarren artikulua bost ataletan urtarrilak 10eko Doako Laguntza Juridikoaren 1/1996 Legea aldatzen du.

Hamaikagarren artikulua artikulua bakar batean Kontratuzko Baldintza Orokorrei buruzko 7/1998 Legea aldatzen du.

Hamabigarren artikulua hirurogei ataletan Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailak 13ko 29/1998 Legea aldatzen du.

Hamahirugarren artikulua Prozedura Zibilaren urtarrilak 7ko 1/2000 Legea guztira hirurehun eta laurogeita sei ataletan aldatzen du, hau izanik aldaketarik garrantzitsuena eta ez soilik duen hedaturagatik, baizik eta Lege honek, beste prozesuekiko, osagarria den aplikagarritasun prozedura orokor lege bezala duen garrantziagatik (*cfr.* honi buruz ZAeko IV atalean baieztatzen dena).



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

Hamalagarren artikulua lauogeita zazpi ataletan uztailak 9ko 22/2003 Lege Konkurtsala aldatzen du.

Hamabosgarren artikulua Arbitrajeari buruzko abenduak 23ko 60/2003 Legea hiru ataletan aldatzen du.

Testu artikulatua hiru azken xedapenekin osatzen da: lehenengoaren bitartez (*bakarra* bezala oker zerrendatzen dena) azaroak 27ko Estatuaren eta Erakunde Publikoen Laguntza Juridikoaren 52/1997 Legeko hirugarren xedapen gehigarria aldatzen da; bigarrena, titulu kompetentzialari buruz jarduten da, zein prozesuzko leislazioaren gainean Konstituzio Espainolaren 149.1.6. artikuluan aurkitzen da; eta hirugarrena, zeinek Estatuaren Aldizkari Ofizialean bere argitalpenetik sei hilabetetara, Legea indarrean sartu dadin erabakitzen duen.

Xedapen iragankorrak gehitu beharko liratezke, zeren eta begi bistakoa dirudi, horren garrantzitsua den lege eta xedapenen zenbatekoa eragiten duen aldaketa bat eskatuko duela; adibide gisa, baliabide erregimen gaien, arau orokorra da xedapen mota hauen barne sartzea.

3. Aurreproiektua ez dator aldaketa edo erreformaren beharra eta aukerari buruzko memoria, azterketa edo txostenengatik lagundua, ezta ezartzen diren neurrien generoa dela eta eraginari buruzko txostenengatik lagundua ere, hala nola emango duen kostuaren balioztapena izango duen memoria ekonomikoagatik lagundua ez datorren bezala, guzti hauek Gobernuaren azaroak 27ko 50/1997 Legeko 22.2 artikuluan aurrez ikusitako eskaerak izanik.

4. Kontseilu honen txostenak orain jasotzen duen Aurreproiektuak aurreko legealdiko aurrekari hurbilak bezala bi Aurreproiektu hauek ditu, biak 2005 urtekoak eta bere egunean Botere Judizialaren uztailak 1eko 6/1985 Lege



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

Organikoa aldatu zuen abenduak 23ko 19/2003 Lege Organikoaren bigarren azken xedapena betetzean aurkeztuak:

a) Lege Organikoaren Aurreproiektua, zeinen bitartez Botere Judizialaren uztailak 1eko 6/1985 Lege Organikoari legislazio prozesala egokitzen zaion.

b) Aurreproiektu Legea, zeinen bitartez Prozedura Kriminalaren Legea aldatzen den, uztailak 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena hain zuzen ere eta Prozedura Zibilaren 2005 urteko urtarrilak 7ko 1/2000 Legea, kasazio errekurtsu, zigor arloko auzialdi bikoitz eta gertuzko justizia gaien gainean.

Bi Aurreproiektu hauen oinarriari buruz, Ministro Kontseiluak 2005eko abenduak 29an, legislazio prozesala Botere judizialaren uztailak 1eko 6/1985 Lege Organikora egokitzen duen, kasazioko errekurtsua aldatzen duen eta zigor arloko auzitegi bikoitza orokortzen duen Lege Proiektua onartu zuen. Ekimen legegile honek Gorte nagusien deuseztapenaren ondorio bezala orain aurkitzen garen urte berdin honetan balioa galdu zuen.

Orain txosten objektu den Aurreproiektua aipatutako beste bi Aurreproiektuetako lehenengoarekin neurri handi batean bat etortzen da, [a] letra], nahiz eta Lege Organikoen erreforma barne sartzen ez duen (hala nola, zuzenketa eskubidearen erregulatzaila den bezala, edo Hauteskunde-araubide Orokorrena den bezala, edo Botere Judizialarena den bezala, Jurisdikzioanalak diren Gatazkenekoei buruzkoa, Militar Prozesalarenari buruzkoa edota azkenik, Zinpekoen Epaimahaiarena izan daitekeen bezala), zeinek guztira, berrogeita hamalau artikulua batzen zituen; bigarren maila batean, 2008ko Aurreproiektuak, 2005eko bigarren Aurreproiektuan aldaketa objektu izan ziren manuak eragiten ditu, [b] letra]; eta hirugarren maila batean, 2005eko bi testu horietako batean ere, hala nola hauek ondorioztatu ziren Lege Proiektuan bezala barne sartu ez ziren beste xedapen batzuk orain bai gehitzen



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

dira. Hau horrela itzuli eta, ondorioz, ulertzen da: bere egunean aurrelegegileak ziren ekintza haiei buruz Kontseilu honek eman zituen Txostenetatik zati handi bat, momentu honetan lasai asko errepikatuak izan daitezkeela instituzionala den koherentzia arrazoi funtsezkoak direla eta, baina hala eta guztiz ere, beharrezkoa izango dela berria denaren aurrean, egoki diren hausnarketak gehitzea.

IV

AURREPROIEKTUAREN GAINEAN HAUSNARKETA OROKORRAK

1. Zaren II atalak horrela adierazten duenez, aldaketa honekin “[I]abur esanda, Epaille eta Magistratuek Konstituzioak hauen kargu utzi dituen funtzioetan beraien eginahal guztiak eskaintzean datza: epaitutakoa epaitu eta burutua izan dadila bete. Horretarako, beharrezkoa da hertsiki adierazi berri diren funtzio konstituzionaletara lotetsiak ez dauden zeregin guzti haien zama hori Epaille eta Magistratu hauei kentzea eta helburu honetara zuzentzen da Bulego Judizialaren eredu berria. Bertan, izaera jurisdikzionala ez duten ardura eta eginkizun horiek beste funtzionario batzuei emango zaizkie eta, beste alde batetik, Justizia Administrazioaren zerbitzuan dagoen lankidego guztiaren lan antolaketa sistemak ezarriko dira, horrela hauen lanbide jarduera eraginkortasun eta ardura guztiaz burutuko da”, III atalean gainera argi eta garbi zera azpimarratzen delarik: “beraz, lege prozesal guztien aldaketan elkar duten helbururik nagusiena alde batetik Epailleen eta Auzitegien eta bestetik idazkari judizialen arteko eskumenen banaketa antolatzea da”.

Hau dela eta, prozesuak arautzen dituzten Legeak eta ez Bulego Judizialaren antolaketa aldaketa objektu izanik, Aurreproiektua lehentasunez prozedura bultzatze gaien idazkari judizialari dagozkion ahalmenak indartzera bideratzen da, prozesu jakin bakoitzaren barruan, epaille eta auzitegietan erresidentzialduak geratzen direnetatik ezberdintzen diren funtzioak idazkari



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

judizialari emanek, hurrengo ideia hau buruan izanik: “Epaile eta Magistratuen jarduera jurisdikzionalari euskarri eta laguntza bezala balio izan zaizkion jarduera guztien gauzatzearen azken arduraduna hau dela hain zuzen ere (Botere Judizialaren Lege Organikoko 435 artikulua), nahiz eta gauzatze materiala Lege Organikoko VI Liburuan araututako Kidegoen funtzionarioei dagokion, bertan ezartzen diren ekintza katalogoarekin bat eta beti ere idazkari judizialaren zuzendaritza tekniko prozesalaren menpe egonik (Botere Judizialaren Lege Organikoko 457 artikulua)” (ZA I).

Ondorioz, Aurreproiektuak alor profesional eta doktrinatu jakin batzuk urteak direla adierazitako idazkari judizialen parte hartzea prozesuaren benetako bultzatzaile eta antolatzaile bezala sustatze nahiari erantzuten dio, behar ez bezalakotzat hartzen ziren gauza ezberdin batzuen egoera bat gaindituz.

Egia esateko, prozesuan, idazkari judizialen parte-hartzearen berdefinizioa Justiziarentzako Estatu Itunean iadanik eskatu zen, 2001eko maiatzak 28an alderdi politiko adierazgarriek izenpetua eta non bere 10. puntuan, Idazkaritzaren funtzioen indartzearen alde modu ausart batean agertzen zen, bereziki hurrengo aspektu hauetan:

-Fede publiko judizialaren berdefinizioa, bera teknologia berrien barne sartzearekin bateragarri eginez.

-Prozedura bultzatzeko guztizko ahalmenak, epailearen esku-sartzea halabeharrezkoa ez den izapideen garapenerako.

-Bere funtzioen indartzea ondasunak gauzatze eta diru bihurtze kontuetan.

-Borondatezko jurisdikzioaren ematea.

-Bulego Judizialean eta zerbitzu orokorretan zuzendaritza funtzioen ematea, horretarako gobernuaren idazkaria eta idazkari koordinatzailea sortuz.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

Jarduketa programa hau da abenduak 23ko 19/2003 Lege Organikoan gauzatu zena, Botere Judizialaren Lege Organikoaren (BJLO) aldaketa bitartez, bereziki, aipatutako Legearen V Liburuko II Tituluari emandako arauketa berriaren bitartez, lege prozesalen moldatzea bere postulatueta aginduzko moldaketa bigarren fase bat osatuz eta kontuan hartuz, aipatutako 19/2003 Lege Organikoaren bigarren azken xedapenean Gobernuari zuzendutako mandatua.

Prozesala den ikuspuntu batetik, idazkari judizialei ez zaie bakarrik prozeduraren bultzatze formal funtzioak eta historikoki emanak izan zaizkion beste batzuk ematen (fede publikoa, dokumentazioa, zaintza, kontuaren ematea, artxibatze eta erregistroa), baizik eta baita “jurisdikzionalak diren funtzioari albokoak diren, baina berarentzat ezinbestekoak, gaietan erabakiak hartzea baimentzen dituzten” beste haiek ere, hurrengo ideia honetatik hasita: “idazkari judiziala, prozeduraren antolaketaren zerbitzu orokorraren buru bezala aurkitzen denean, prozedura bultzatzeko baldintza hobeagoetan egongo da, horrela, epaile edo auzitegiak funtsezko ebazpenak denboran eta formaz eman ahal izatea baimenduz”. (ZA II).

Aurreproiektuak duen ideia bultzatzailea funtsean zera da: idazkari judizialei dagokien bultzatze prozesalaren funtzioa lotesleak diren ezaugarriekin nabarmentzea eta beraz, ezaugarri horiek ematea, prozedura bakoitzean aipatutako ahalmen horren jardutearen denbora eta forma zehaztuz, helburua gailendu den, hala esaten da behintzat, nolabaiteko indefinizioa gainditzea izanik, orain arte, legegintza organikoan onartuak izan diren parte-hartze ahalmenaren zentzuzko garapena galerazi duen indefinizioa berau hain zuzen ere.

Aurreproiektuak, azken batean, ideia gidarian du inspirazioa, non horren arabera, Bulego Judizialaren kontuei buruz datzan 19/2003 Lege Organikoaren bidez bultzatutako aldaketa organikotik aurrera, beharrezko egiten da idazkari



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

judizialak aintzinatik hartuak dituen prozesuaren antolaketa funtzioak bultzatuak eta areagotuak izatea, modu honetan, bultzatze prozesua, idazkarien berezko eskumen bat eta era berean berariazko eskumen bat bihurtu arte eta soilik, BJLO 165. artikulua Justizia Saletako Lehendakarien eta Epaileen esku uzten dizkion gaien gain dagoen zuzendaritza eta ikuskaritzari lotua dagoena.

Azaldu den testua laguntzen duen diseinuarekin bat, oraintsu adierazitako horrek zera dakar; barne prozesu esparruan, idazkari judizialari ematen zaion arau juridikoaren balorazio eta interpretazio gaitasun handi baten onarpena, ulertuz, honi ere, Zuzenbidean teknikari bezala izanik, oinarrizko eskubideei arazeria ondorioztatzeagatik erreserba jurisdikzioanalari lotua geratzen ez den guzti horretan, hala nola egoera edo harreman juridiko-materialei lotua edota auzien funtsezko gaiari lotua ere geratzen ez den guzti horretan, bere interpretazioa eta aplikazioa dagokiola.

2. Idazkari judizialaren ahalmenen indartzeaz gain, Aurreproiektuak garrantzia ezberdina duten beste gai batzuk barne hartzen ditu, aldaketak edo erreformak, hobekuntzak, eguneratzeak edota egokitzapenak gehitzeko aukerari probetxua ateratzen dioelarik. Gai konkretu hauek Txosten honetan tratamendu objektu izango dira prozedura bakoitzeko erreformak eta zenbait aldaketa orokor aipatzean, guzti horiek prozesu zibilaren erreformari dagokion Txosteneko atalean ikusiko direlarik, erakunde orokorreari egiten zaien erreferentzia, prozesu bakoitzean behar dena baino gehiago ez errepikatzea helburua izanik.

3. Bere xedapen sistematikoa kontuan hartuz, egokitzat hartzen da ere bere irakurketa eta erabilera errazagoa egin ahal izateko laguntza eman dezakeen Aurreproiektuari aurre hausnarketa bat egitea: bere testu artikulatuaren antolaketari buruz datza, aurretik adierazi den bezala, beste hainbat Legeen aldaketa hamabost artikuluetan garatzen duena, antolaketa kronologikoa duen eskema zorrotz bat betez eta ez sistematikoa, zein neurri



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

handi batean, arauemailea den teknika arrazoi sahiestezinengatik eskatua datorrena. Honek, aldi berean, gaia dela eta, antolaketa jurisdikzional edo aldaketaren garrantzia dela eta, inolako irizpiderik izan gabe, garrantzia eta esanahi ezberdinak dituzten legeak jazotzea eta tartekatzea eraginduz.

Hau dela eta, eta posible den bitartean, artikulatua kapitulu ezberdin batzuetan banatzea gomendatzen da, antolaketa jurisdikzional bakoitzeko bat, hauetako kapitulu bakoitza oinarrizko prozesu Legeen aldaketari buruzko artikulua batekin hasiz – Prozedura Zibilaren Legea, Prozedura Kriminalaren Legea, Lan Prozedurari buruzko Legea eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeari buruzkoa -, eta berau, dagokion jurisdikzio ordenaren gainontzeko prozesu legeen erreformarekin jarraituz. Prozedura Zibilaren Legeari bere 4. artikulua onartzen dioen Prozesu Legearen izaera orokorrak, zeinek prozedurazko gainontzeko legeen bitartez arautzen ez diren aspektuetan derrigorra izango den igorpenezko ordezkotik zuzenbidean bihurtzen duen, gomendagarria egingo luke testu artikulatua, ordena zibilar dagokion kapituluarekin hastea.

Era berean, Doako Laguntza Juridikoaren Legeari kapitulu bat ere gorde ahal izango litzaioke, ordena jurisdikzional konkretu bati txikigarria ez izatean.

Azkenik, aldaketak duen asmo handiaren oinarritik hasita, zeinek horrelako ezaugarriak dituen txosten batek izan beharko lukeen handitasunarekin erreforma guztiaren analisi sakon bat bateraezina egiten duen, Aurreproiektuan proposatutako aldaketen azterketa eta balorazioa ondoren garatuko dira, eta guzti hau, proposatutako ordena jarraituz, nahiz eta erreformaren ikuspegi anitzen sistemaziazioa baimentzen duten maila prozesalaren ikuspuntua kontuan hartuz izan. Beste alde batetik, azalpenaren lehenetsuneko haria gidatuko duena – bere hedadura dela eta – idazkari judizialekin zerkusia duen erreforma izanik, ondoren Txostenaren testuan derrigorrezkoa izango da idazkari judizial hauen funtzioak hertsiki eragiten ez



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

dituzten baizik eta beste erakunde prozesal batzuk hertsiki eragiten dituzten erreferentzia ugari barne sartzea.

4.- Beharrezko da gehitzea, Konstituzio Espainolaren 117.1 artikularekin bat datorren 122.2 artikularen espiritu eta helburuaren barruan, Botere Judizialaren gobernua Botere Judiziala osatzen duten Epaille eta Magistratuen independentzia bermera lotesten dituztela, txostenari lotua dagoen Aurreproiektu Legearen ezarpena nahi duen Bulego Judizialaren eredia arrazionalizatzeko laguntza ematea helburu bakarra izanik, hala nola berak duen aginduzko edukiaren koherentziara mugatzeko helburua ere izanik, hau, bere Zioen Azalpenak onartzen duen asmoarekin bat. Hain zuzen ere, Zioen Azalpen honek zera ohartarazten du: Epaille edo Auzitegi eta Idazkari Judizialaren arteko erlazioei dagokionez, prozeduraren antolaketa zerbitzu arrunta honen esku uztean, nahi den bakarra bere bultzadarako “baldintzarik onenak” ziurtatzea da, honek bere kabuz, Epaille edo Auzitegiak prozeduraren zuzendaritza galduko dutela esanahi gabe (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 165. artikulua).”.

Ondorioz, ekimen legegilearen titularrak argi eta garbi bereizten du prozeduraren antolaketa zerbitzu arruntaren prozesuaren eta erantzukizunaren zuzendaritzaren artean.

Aipatutako bereizketarekin bat, bi ekintza mailaren tipifikazio arauemailea aditzera ematen da, zeintzuk Lege Aurreproiektuak eragiten duen legeria prozesalaren erreforman barne sartu beharko liratezke. Hitzegiten ari garen maila horiek hain zuzen ere, ondorengo hauek dira:

- Zuzendaritza prozesaleko egintzak, zeintzuk funtzio jurisdikzionalaren jardutean erabakigarriak diren, bere garapen normala modu zuzen batean baldintzapean jartzen duten neurrian, bere osotasunean eragina sortuz eta zeintzuk gure Konstituzioaren 117.3 artikularekin bat “legeen bitartez zehazten



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

diren Epaille eta Auzitegiei dagozkie eskusiboki, hauek finkatzen dituzten eskumen eta prozedura arauen arabera”, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 2.1 artikulua behin eta berriz errepikatutako printzipioa hain zuzen ere.

- Gauzatze egintzak edo gai arruntei buruzkoak, funtzio jurisdikzionalaren jardura arrunta eragiten edota baldintzapean jartzen ez dituztenak eta Idazkari Judizialaren erantzukizunaren kargu utzi ahal direnak.

Proposatutako tipifikazioak horrela, antolaketa jurisdikzional guztietan horren garrantzitsuak diren ezartzeak bezalako jardura prozesal batekin zerikusian, organo baten eta bestearen erantzukizunaren zalantzarik gabeko mugaketan laguntza emango luke, Aurreproiektuak duen erregulazioan faltan botatzen dena.

Prozesuaren zuzendaritzak Epaille eta Auzitegiak gomendatzen zituen, hau, izaera horretaz parte hartzen duten egintzen bitartez artikulatua, ezin daiteke Bulego Judizialaren funtzionamendua kontuan hartu gabe antolatu edo utzi, eta guzti hau soilik, funtzionalak diren arazoak direla eta, zeren eta Justizia Administrazioaren eraginkortasuna, XXI. mendeko herritarren legezko itxaropenaren testuinguruan, zerbitzu publiko honen osotasuna bermatu behar baitu.

Honek konpartimentu iragazgaitzen egitura baztertzen du, alde batetik Epaillea eta bestetik Idazkari Judiziala, zeren eta osotasun printzipioaren galeraren ondorio bezala, Botere Judizialaren jardutean bultzada beraren ahultasuna suposatuko luke.

Ondorio bezala, lehen aipatutakoa normatiboki adibidez adierazteko, Aurreproiektuaren nahia den Prozedura Zibilaren Legeko aldaketari dagokionez, arau prozesal horren 179.1 artikulua, indarrean dagoenak esan



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

bezala mantendu beharko litzateke, ondoren parrafo berri bat erantsiz eta hurrengo idazketa hau izango lukeena:

“Prozesuaren bultzada Idazkari Judizialaren erantzukizuna izango da, huraren zuzendaritza eragiten ez dituzten beharrezkoak diren gauzatze egintza edo gai arrunten bitartez”.

Guzti hau, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 456. artikuluan Idazkari Judizialak proiektuaren bultzadari buruz ezarritakoarekin bat.

Iradokizun hau kontuan hartuko balitz, aipatutako proposamen arauemailea aldatu nahi den legislazio prozesalaren osotasunera hedatu beharko da.

V

ALDAKETAK ORDENA ZIBILEAN

1.- PROZEDURA ZIBILAREN LEGEA

Aurreproiektuaren lehen artikulua 1881eko PZLa 12 atalen bitartez aldatzen du, eta hamahirugarren artikulua, luzeena berau, 2000ko PZLaren erreforma guztira 386 ataletan banakatzen du. Sistematizazio ahalegin batean, Txosten honetan alde batetik idazkari judizialen funtzioak eragiten duen erreformaren atal hura, prozesu zibil ezberdinen erakundeekin lanean diharduen beste atal horretaz banatzeko gaien lehen banaketa bat egiten da. Iadanik aipatu den bezala, 2000ko PZLaren erreforma eremugan, beharrezkoak ez diren errepikapenak eragozteko, beste lege prozesal batzuei aipamenak barne sartuko dira.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

1.1. Idazkari judizialen funtzioak

Idazkari judizialen funtzioei buruz, PZLaren erreformak, neurri handi edo txikiagoan, BJLOaren 452. artikuluan eta ondorengoetan azaltzen diren guztiak eragiten ditu: fede publiko judiziala, dokumentazioa, auto eta espedienteen prestaketa, kontuaren ematea, prozeduraren bultzada bere izakera ezberdinetan, ondasun eta norberaren gauzen artxibatze, erregistro eta depositua. Ondoren datorren analisiak jarraitzen duen eskema hau berau da.

1.1.1. PROZEDURA BULTZATZEA

A) Orokortasunak

Epigrafe honen garapenaren arabera, BJLOak prozedura bultzatzeari bere 456. artikuluan ematen dioen edukitik hasi beharra dago eta honek, berriz ere aipatua izatea merezi du:

“1. Idazkari judizialak prozedura Legeek ezartzen dituzten esanetan prozesua bultzatuko du.

2. Horren arabera, prozesuaren tramitaziorako beharrezkoak diren erabakiak emango ditu, prozedura Legeek epaile eta auzitegiei gordeak dituzten haiek direnean salbu. Erabaki edo xedapen hauek eginbideak deitzen dira eta antolaketarako eginbideak, jasotzeko eginbideak, komunikaziorako eginbideak edo betearazpenerako eginbideak izan ahalgo dira. Antolaketarako eginbideak epaile edo txostengilearen aurrean aurkeztu ahal izango dira, prozesu Legeetan aldez aurretik ikusitako kasu edo eratan.

3. Idazkari judizialek, prozesu Legeek horrela aurrez ikusten dutenean, hurrengo gai hauetan eskumenak izango dituzte:



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

- a) Gauzapena, prozesu Legeek epaile eta magistratuentzat gordeak izateagatik alde batera uzten dituzten eskumen haiek salbu.
- b) Borondatezko jurisdikzioa, bere tramitazioa eta erabakiaren ardura hartuz, alde batera utzi gabe jarri ahal izan daitezkeen errekurtsioak.
- c) Adiskidetzeak, berezkoa duten bitarteko eginkizuna gauzatu.
- d) Aurrez espresuki ikusten den beste edozein gai.

4. Dekretu deituko zaio idazkari judizialak eskumena eskusiboki duen prozedurari termino edo hitz bat jartzeko asmoarekin ematen duen ebazpenari, edo bere erabakia arrazoitzea beharrezkoa edo gomendagarria denean. Beti izango da motibatua eta banaturik eta zenbakiturik dauden parrafoetan beti izango ditu egitatearen aurrekariak eta oinarritzat hartzen dituen zuzenbidearen oinarriak”.

Artikulu hau eskematizatuz, prozeduraren bultzadari lotutako idazkari judizialaren funtzioak hurrengo honetan aditzera ematen dira:

a) Jarduera prozesala:

1goa) Ebazpenen igorpena: antolaketarako eginbideak eta dekretuak.

2.a) Jasotzeko eginbideen praktika.

3.a) Komunikaziorako eginbideen praktika.

4.a) Betearazpenerako eginbideen praktika.

b) Prozedurazko eskumenak:

1goa) Gauzapena, prozesu Legeek epaile eta magistratuentzat gordeak izateagatik alde batera uzten dituzten eskumenak salbu.

2.a) Borondatezko jurisdikzioa: bere tramitazioa eta erabakiaren ardura hartuz, alde batera utzi gabe jarri ahal izan daitezkeen errekurtsioak.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

3.a) Adiskidetzeak.

4.a) Aurrez espresuki ikusten den beste edozein gai.

Aurreproiektuak, *supra* adierazi den bezala, epaile eta idazkari judizialen jarduera esparruak argi eta garbi banatzeko beharra planteatzen du. Jarduera esparru bakoitzaren mugen azalpen hau, urtarrilak 7an 1/2000 Legeak onartu zuen PZL berria inspiratu zuen bideetako bat izan zen. Honek, bere edukia zabalduz, antolaketa eginbideak, idazkari judizialei prozesu antolaketan dagozkien funtzio-espresio bezala mantentzea aukeratu zuen eta funtzio judizialekin nolabaiteko nahasketa gradu bat sortzera laguntzen zuten ebazpen proposamenak bertan bera utzi zituen.

Aipatutako Legearen EM an esaten den bezala, BJLOak barne sartutako ebazpen proposamenak idazkari judizialen eztabaidan jarri ahal ezin daitekeen ezagutza teknikoari probetxua ateratzeko ez dute balio izan, baizik eta, hobe esatearren, hauen eskuduntza eta auzitegien eskumenen arteko nahasketa areagotzeko baino ez dute balio izan, maiz, segurtasun gabezia eta atsekabea sortuz. Hemendik, Legeak, erabaki judizial bat eskatuko lukeen edozein gai prozesal, auzitegi bidez konpontzeko beharraren zehazpena aukeratzea, bai epailearen erabaki baten bitartez, bai auto baten bitartez, gaien arabera, prozesuaren antolaketa formala eta materiala, azken finean, bultzada prozesalak ziren ebazpenak, idazkari judizialentzako gordeta geratzen ziren bitartean, testu artikulatu osoan zehar, zer nolako momentuetan forma inpersonalak erabiltzearen bitartez antolaketa eginbide bat hartu behar den zehaztuz, hauek, ekintza bakoitza, prozesuaren bideratze egokiaren arduradun gisa lan egiten duten haiek burutu behar dutela ondorioztatzea baimentzen dutelarik.

Aurrean dugun erreforma hau antolaketa prozesala bideratze eta ekintza bakoitzean idazkari judizialari edo epaile edo auzitegiari dagokion zehazteko txostenera zuzentzen da. Modu honetan, antolaketa prozesalaren azken



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

erantzule gisa idazkariari dagokion eskuduntza zuzentzeko ekintzak zeintzuk diren zehaztasunez finkatzea nahi da eta zeintzuk diren bestetik, ahalmen jurisdikzionalaren jarduerarekin lotuak egoteagatik, organo jurisdikzionalako titularraren eskuetan geratu behar dutenak.

Idazkari judizialen eta epaile eta auzitegien arteko eskumenen mugaketan, aipatzen ari garen erreforma edo aldaketa prozesalak ez du, beraz, bere funtsari dagokionez berritasun bat suposatzen, zeren eta prozesuaren antolaketa iadanik idazkari judizialei dagokie; beste alde batetik, orokorrean hobetasun tekniko bat suposatzen du, horrela adierazten du, era determinatu eta zehatz batean, autoritate bakoitzari dagozkion ekintzei buruz hitz egiterakoan, kasu bakoitzean, jurisdikzioaren jarduteari albokotzat hartzen den jarduera zein den argituz eta ondorio bezala, idazkari judizialak bere gain hartu dezakeena eta zein beste ekintza organo judizialeko titularrari gordeak geratu beharko liritezkeen, ahalmen jurisdikzionalaren jarduteari lotuak egoteagatik.

Helburu argigarri edo didaktiko honi, PZLko manu zenbateko handi batek jasaten duen xehetasunezko erreformak erantzuten dio, espresio inpersonal moduak, jardueraren erantzule denaren zentzuzko zehaztapen bategatik aldatuz. Ukitu hauek manu askotan ikus daitezke baina hauen aipamen osoa eta sakona alde batera uzten da, azken batean luzeegia eta ez beharrezkoa suertatu ahal izango litzatekeelako, nahiz eta argigarritasun hobeko batentzat manu zehatzei aipamena egin eta, batzuetan, modu labur batean hauen edukiari ere aipu hori egin. Ezin desenkusatzeko aipamen hauetako bat 179.1 artikulua da, "organo jurisdikzionalari" aipua hain zuzen ere eta "idazkari judizialagatik" ordezkatzeko duena prozesuari dagokion ibilbidea ofizioz ematearen eginkizuna esleitzean, helburu horretarako behar diren ebazpenak emanaz, Legeak beste zerbait erabaki ezean. Beste manu garrantzitsu bat 186. artikulua da eta honek, idazkari judizialari, zuzendaritza prozesalaren boterea eta bere eskumen eskusibokoa diren gaien bistetan auzien gelako polizia ematen dio.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

Testu legalaren aldaketa eta egokitzapen ibilbide honek merezi duen iritzia orokorrean positiboa da, zeren eta materiari buruzko zalantzak eta ziurgabetasunak argitzeko laguntza emango du eta Auzitegien eta Bulego Judizialen jardueran homogeneousutasun handiago bat ere ezarriko du, noizean behin sortzen ziren eta ez oso gomendagarriak ziren jardueren sakabanatze eta aniztasuna gaindituz. Baina, alde batetik epaile eta auzitegien artean existitzen diren eginkizunen banaketa dela eta, eta bestetik idazkari judizialak, gai prozesal jakin baten gainean erabaki bat hartzeko orduan bakoitzari dagokion eskuduntza baieztatzerakoan beraien artean sortu daitezkeen ezberdintasunak konpontzea baimenduko luketen barne-prozesuen mekanismoak ez datoz behar beste giltzatuak. 181. artikulua 1go zenbakia adibidez, potentzialki polemikoa izan daitezkeen manu baten eredu izan daiteke, helburu horretarako *txostengilea den magistratuaren funtzio bezala*, eta zeinen arabera, honi ondorengo hau dagokioke: “[o]hizko bulegoa eta dagozkion gaien tramitazioaren zaintza, idazkari judizialari dagokion bultzada edo eragipena alde batera utzi gabe”.

Egia da kasu batzuetan – aurrerago ikusi ahal izango den bezala – legeak, idazkari judizialaren ebazpen baten aurrean, azken erabakia epaile edo auzitegiarena dela ezartzen duela, baina beti ere berrikuspeneko errekurso bat jartzea posible zaionean; hala eta guztiz ere, txosten hau ez behar bezalakoa izan daiteke errekurso honen aukera izango ez duten kasu guzti haientzat edo nahiz eta aukera hau egon arren, aldeek errekurso hori ez gauzatzean eta honen ondorioz, idazkari judizialaren erantzuna atzera bota ezina bilakatuko litzateke. Arazo hauentzat konponbide posible batek azken erabakia epaile edo auzitegiari dagokiola adierazten du, bultzada prozesala instrumentala eta funtzio nagusi bezala epaitua izateko baldintzatua egotea duen eanean, eta dagokien prozesuaren zuzendaritzaren boterea era eraginkor batean gauzatu ahal izateko mekanismoa, idazkari judizialak emandako ebazpenen ofiziozko aukerako berraztertzea izango lukeen eanean, behar izanik, aldean entzute



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

aurre-bideratze bat hartuz eta berrikusitako ebazpenaren baliokide den motibazio gradu bat eskatuz. Berrikuspen honetatik kanpo geratuko litzateke fede publikoaren jarduerari buruzkoa litzatekeena, hau, idazkari judizialari modu eskusibo batean eta osotasunez dagokion funtzioa izanik.

Beste gauza batzuei araber, argitzea beharrezkotzat hartzen da idazkari judizialaren funtzioen izendapena, honen praktikan jartzea, maila altuagoa duen bere erantzukizunaren izendapen bezala ulertuz egin behar dela, Bulego Judiziala osatzen duen langilegoaren “alderdi tekniko-prozesalean” zuzendari gisa (BJLO 457. artikulua), eta antolaketa ekintza bakoitzaren materializazioa azken momentuan, aipatutako langilegoari dagokiola alde batera utzi gabe.

EM Ilan onartzen den bezala, kontuan hartu behar da arauak, zeintzun erreforma Aurreproiektuan heltzen den, prozedura erregulatzen duten arauak direla, ez antolaketa izaera duten arauak, eta hau dela eta artikulatu guztian zehar, zerbitzu prozesal arruntei aipamenik ez egitea saiatu da, kasu berezietan salbu. Bestalde, egindako testuak ulertzeko, ezin da begi bistatik galdu ia kasu guztietan idazkari judizialak funtzio zehatz hori egingo duela esaten dela, duten eskumen esparruan epaile eta auzitegiek hartzen dituzten erabaki guztien konplimenduaren azken erantzule gisa (BJLO 452.2 artikulua) eta kontuan hartuz epaile eta auzitegien jardura jurisdikzionalaren zerbitzuan - “euskarri eta laguntza bezala” - dagoen Bulego Judizialaren izaera instrumentala (BJLO 435.1 artikulua). Guzti hau, alde batera utzi gabe aipatutako Lege Organikoaren VI. Liburuan araututako Kidegoen funtzionarioei dagokiela gauzatze materiala, bertan ezartzen den eta idazkariaren zuzendaritza tekniko prozesalaren menpe gauzatzen duten funtzio katalogoarekin ados.

Edozein dela kasua ere, gomendagarria izango litzateke kudeatzaile prozesalaren irudia – hipotesi berezi batentzat BJLO 451.3 artikuluan gertatzen den bezala – testu artikulatuan dagokion lekuetan agertzea, egokia litzatekeenean BJLO 476. artikuluekin ados emanak, izaera orokorraz eta



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

hierarkia printzipioaren menpe, prozesuaren antolaketarako ekintza haien jarduera zeinen eskumena den zehaztea, zeren eta idazkari judiziala eta organo jurisdikzionalaren titularraren artean funtzioen mugaketa egitea guztiz gomendagarria den bezala, era berean, egokia ere izan daiteke era zehatzago batean kudeatzaile prozesalei zein jarduera konkretu esleitzen zaien jatorrizko era batean finkatzea, modu honetan ere bigarren maila edo hierarkia maila honetan nahasketak edo anbiguotasunak saihestuz.

Kudeatzaile prozesalen berezko funtzio bezala PZLko artikulatuan aipatu ahal izango litzatezkeenak, legearen edo arau prozesalaren interpretazio bat eskatzen ez duten bideratze prozesaleko jardueren gauzatzeari dagozkienak liratezke, alde batera utzi gabe idazkariari honen kontuaren berri ematearen beharra (cfr. 178.3 artikulua) eta, eskatua izanik, organo judizialaren titularrari, aldean agerpen jarduera eta sinadura ematearen beharra. Hauei buruz, kudeatzaileak egiaztapen ahalmena izango du, froga ez diren datu eta elementuak prozedimenduari lotzea helburu duten noten luzapena, beraien beharrezko iraunkortasuna bermatuz, edo dokumentuen erregistroa, hartzea eta banaketa.

B) Bisten eguna jartzea eta galarazpena

Prozesuaren antolaketan idazkari judizialari ematen zaion erantzukizunaren indarketa era zehatzago batean azaltzen den aspektuetako bat, bisten eguna jartzeari buruzkoa da, hain zuzen ere momentu honetan organo judizialeko titularrek duten eskumen hau ari garen idazkari judizial honetan besterendua izatean.

EM aren IV. atalean honi dagokionez, ondoren adierazten den hau baieztatzen da: *egoki diren jarduera prozesalen sustapenean* datzan helburu osagarria lortzeko



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

“lege prozesal guztietan edozein bista motari eguna jartzeari buruzko erregulazio berri bat barne sartu dela. Funtsezkotzat hartzen da auziak epaiketa eguna jartzeko egoerara heldu einean horrela izatea baimentzeko eta beti ere ados berezko lege prozesalek gai konkretu batzuentzat ezartzen dituzten lehentasunekin, idazkari judiziala izan dadila zein, zentralizatutako zerbitzu batetik eta epaiketa egunak jartzeko “programaturik dagoen agenda” bat kudeatuz, hauentzat data finkatuko duena. Modu honetan, helburu hura, bisten salak erabiltzeko nahi den razionalizazioarekin bateratu ahal izango da, egunak jartzeko sistema zentralizatu bat erabiltzeko ezinbesteko beharrari erantzen zaion guztiari hain zuzen ere, kontuan izanik, Bulego judizial berria hedatzen doan einean eta Ohizko Zerbitzu Prozesal ezberdinak antolatzen, lantoki zentroa hauetan, eta ez epailearekiko laguntza zuzeneko unitate prozesaletan izango dituzten funtzionarioak, izango direla hura, saletako bisten ospakizunean lagunduko dutenak.

Hala eta guztiz ere, idazkari judizialei eskuduntzen emate hau, eguna ematea, Salako edo Sekzioko Lehendakariaren edo adierazten zaizkien organo judizialaren titularraren irizpideak kontuan izanik egiaztatuko da, bai bere lanaren antolaketari buruzkoa denaren gainean, bai konkretuki bistaren gutxi gorabeherako luzapenaren arabera, horiek, ari diren gai edo auzia, behin aztertu ostean zehaztu ahal izango duten bitartean.”

Erreformatan proposatzen den testuan, 182. artikulua banatuak dauden bi ataletan bisten eguna jartzeari aplikagarria zaion erregimen juridikoa arautzen du eta bista ospakizunik gabe epaitu beharreko gaien deliberazio eta botaziorako data eta orduaren ezarpenari buruzkoa. Artikuluak ondorengo hau ezartzen du:

“1. Kide anitzeko auzitegietan eta unipertsonalak direnetan, bisten eguna



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

jartzea idazkari judizialak egingo du, aipatutako bista edo epaiketa hori ospatu beharreko egoerara prozedienduak heltzen doazten ordena jarraituz. Guzti hau, legez ezarritako salbuespenak salbu, eta entzunaldi orduak kontuan hartuz, organo judizial bakoitzarentzat aurreikusia dagoen salaren erabilgarritasuna, Bulego judizialaren giza baliabideen antolaketa, Fiskaltzarekin Legeak honen esku hartzea aurrez ikusten duen prozedimenduen koordinazioa eta era berean, kontuan hartuz egun jartze kopurua nahiz argibideak eta izaera orokorreko irizpideak. Gainera, eta bereziki, kontuan hartuz baita aipatu beharreko jarduerentzat dagokion organo judizialeko titularrak edo kide anitzeko auzitegietan Sala edo Sekzioko Lehendakariaren bitartez emandako eta kontuan izan beharreko iraupena.

2. Kide anitzeko Sala edo Sekzioko Lehendakarien erantzukizuna izango da bista ospakizunik eman gabe epaitu beharreko gaien data eta orduaren deliberazio eta botaziorako eguna jartzea.”

Berriz ere aipatzea dago lehenik txosten honetako Hausnarketa Orokorrei buruzkoa den IV. ataleko 4. zenbakian egiten den eguna jartzearekin erlazioan iadanik adierazten dena.

Artikulatuaren irakurketatik, manu honen egitura berrian deigarria suertatzen da erreferentzia testuarekiko lege prozesal baten testuingurutik kanpo ematen diren aspektu administratibo edo antolaketari buruzko aspektuen eransketa, hala, organo judizial bakoitzarentzat aurrez ikusitako salaren erabilgarritasunari aipamenak diren bezala, edo Bulego Judizialaren giza baliabideen antolaketari egiten zaizkionak bezala. Ez dago inolako zalantzarik horrelako baliabide pertsonal eta materialen ezinbestekotasunaren gainean, baina ezin ukatu daiteke ere prozesuaren beharretara egokitu behar dutela eta era berean justiziatu daitekeenarentzat dakarren bermeetara ere egokitu beharra dutela, eta ez alderantziz.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

Idazkari judizialaren esku eguna jartzea eta batzuetan ere, zitazioa edo deia horien esku uzten dituzten PZLaren artikuluen artean, hurrengo hauek aipatu daitezke: epaiketen eguna jartzea eta bisten gainean (14.2.3, 182,183,193.3, 235.4, 260.1, 422.2, 423.3, 429.2, 3 eta 7, 440.1, 441.4, 464.1 eta 2, 486.1, 558.2, 560, 657.2, 675.3, 734.1, 747.1, 794.4, 809.2, 811.5, 818.2 eta 826 artikulua), entzunaldien gainean (414.1 artikulua), agerraldiei buruz (22.2, 110.1, 127.1, 234.1, 393.3, 540.3, 640, 678.2, 695.2, 768,3, 771.2 eta 3, 772.2, 773.3 eta 4, 787.3, 801.2, 810.3 eta 811.3 artikulua), epaiketaren aurreko frogen praktikarako (290 eta 294.2 artikulua), azterketa judizialekoa (353.3 artikulua) eta azken izapideten froga bezala (436.1 artikulua).

PZL 1881a, PZL 1881eko 466. artikuluan adiskidetzeko ekitaldirako eguna jartzeari buruz mintzatzen da baina Bake Epailearen partetik zitazio eta eguna jartzea mantentzen ditu, bere eskumenekoak diren adiskidetzeetan.

Hala eta guztiz ere, momentuan dagoen araua mantentzeko aukera kontuan hartu beharko litzateke, bereziki, bi arrazoi direla eta: lehenik, eguna jartzea, prozesuaren zuzenbide ekintza bat da eta bere izaeragatik funtzio jurisdikzionalarekin eta estatutu judizialarekin estu elkar lotzen da (etekina, erabakitzailea den ahalmena, ordainketak, bateragarritasuna...); eta, bigarren plano batean, zeren eta funtsean zigor-arloko ordenan, epailea, prozesuaren objektuaren gainean duen ezagutza dela eta, eta eztabaidagarriak diren gaiengatik, alegazio eta frogen ekintzen tamaina eta konplexutasuna baloratzeko posiziorik egokienean aurkitzen dena delako eta ondorioz, baita ere epaiketa edo bista adierazteko kontuan hartu behar diren elementuak baloratzeko, hala nola, behin-behineko gertakaerak eta modu honetan, hauen garapen egokia ziurtatzen du, zerbitzu publikoari kalte egin ahal dioten galarazpen eta atzerapenak eragotziz.

Hau, existitzen diren baliabideen razionalizaziorik handiena lortzeko



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izateko aukera alde batera utzi gabe.

Edozein dela kasua ere, aurreproiektuaren sistemarekin ados, begi bistakoa da bisten egunen ezarpenak organo judizialen titularrekin koordinatu behar direla, irizpide orokorren gogozko konplimenduak bermatzeko eta batez ere hauetatik sortzen direnak. Era honetan, edozein dela kasua ere bisten egunen ezarpenak ezin izango dira planifikatu, bista horien edo aurkezte horien buru izango diren Epaile, Magistratu edo Sala edo Sekzioaren Lehendakariaren irizpidearen kontra.

Beste alde batetik, idazkari judizialak Aurreproiektuan bisten egunen ezarpena burutzeko onartua duen ahalmena, bere *luzamendua* eskatzeko auzilari edo abokatuak ezarritako justifikazioaren gaitasunaren erabakiari ere zabaltzen zaio. 183. artikulua erreforمان ematen dioen idatzian ezartzen duenaren arabera, bista batetara joan beharra lukeen edozeini, ezarritako egunean bertara gerturatzea ezinezkoa balitzaio, inolaz ere alde batera utzi ezingo lukeen arrazoi bategatik edo izaera berdintsu bat lukeen beste edozein arrazoiengatik, auzitegiari berehala esango dio, kausa edo zergatia behar den bezala egiaztatuz eta egoeraren kargu egingo den beste bista edo erantzun berri baten egunaren ezarpena eskatuz.

Testu erreformatuak ezintasunaren egoera alegatzen duena alde baten abokatua izatea edo alde berdina izatea ezintasun egoera hori alegatzen duenak bereizten du eta kasua hau izanik, alegatutako kausari kasu egin ahal zaion edo ez, eta behar bezala egiaztatutako kausa den edo ez erabaki beharko duena idazkari judiziala izango da (PZL 183.2 eta 3 artik.). Bestalde, bistara gerturatu beharko lukeena ezintasun egoera horretan dagoela lekuko batek edo peritu batek jakinarazi izango balu, kasu honetan, idazkari judizialak ez luke erabakirik hartuko, baizik eta aldeak entzutea aginduko luke eta auzitegiak bere aldetik atxakiaren justifikazioari buruz egokitzen hartzen duena erabakiko luke eta baita ere, egun berri baten ezarpenaren beharraren gainean,



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

bai lekukoa edo bai peritua, bistaren egunetik kanpo, ekintza frogagarriaren jarduerarako deitu.

Hasiera batean, ez legoke ezer aurka esaterik aplikagarria den erregimenaren bereizitasun honi, kontuan hartuz bistara ez aurkezteko atxakia zeinek jartzen duen; baina, atzerapen erabakiaren inplikazioa behar ez diren luzamenduak eman ez daitezen eskumena duen prozesu batek (BJLO 188.1 art. arg. audientzia publikoaren epealdiarekiko) idazkari judizialari aldagarria den edo ez berriz ere planteatzea gomendatzen dio. Dударik ez dagoenari buruz eta zentzu honetan azaltzen da hain zuzen ere erreforma, testifikala edo periziala den frogaren jarduera ezinbestekoa den edo ez erabakitzeke orduan, dudagabe judiziala den eskumen baten aurrean gaudela da, edo bera, aurretik edo bistatik aparteko ekintza batean burutzea agintzen duena da. Zentzu honetan, ez da posible ahalmen hauek idazkari judizialari igarotzea. Puntu honekin bukatzeko, erreformak, ez du ezer esaten epaile edo auzitegiak zerrendatu diren arrazoiak ez diren beste zergati batzuegatik bista egunaren atzerapena erabakitzea edo aldatzea ahal izateko aukeraren aurrean, honek berarekin batera dakarren ondoriozko bisten egunen jarpen agendaren aldaketarekin (adibide gisa, beharrezkotzat hartzen denean premiazko gai bati berehala bista eguna jartzea, iadanik eguna jarrita duen beste baten atzerapena dakar).

Ezarrita duen egunean bista *geldieraztearen* erabakia ere idazkari judizialari ematen zaio, arrazoi justu bat alegatuz, aldeek batera ados jarrita horrela eskatzen dutenean (PZL 188.1.3. art.), hauetako edozeinen aldetik epaiketan edo bistan galdetuak izateko erabateko ezintasunagatik, “idazkari judizialaren arabera, nahikoa justifikatua egonik” (PZL 188.1.4. art.); baita ere alde baten abokatuaren giza-eskumen batzuen ezintasunagatik edo horiek gauzatu ezin ahalagatik (PZL 188.1.5. art.). Idazkari judizialak erabakitzen duen edozein etenaldi, auzitegiari egun berean edo laneguna den hurrengo egunean jakinaraziko dio eta idazkariak bertan dauden aldeei eta lekuko bezala, edo



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

bigarren auzialdiko auzitegiarentzat, zeren honek dokumentatutako jardunaldia ez ikustean, ez duelako erreferenterik -, bereziki, erregistratutako jardunaldiaren iraupena denboran luzea izan denean, honek hitzez hitzeko bere transkripzioa, horrela auzitegiak egokia deritzon, kontsulta lanak erraztu eta sinplifikatzera lagundu dezake, jardunaldi edo gertakari konkrituak zehaztasunez aurkitu, berrikusi eta analizatzeko orduan, ohi denez ahozko jardunaldietan ematen diren “epe etenetatik” berriz pasatzea eragotziz eta idatzizko aktan baztertzeko direnak, modu honetan eginkizun juridikionala arinduz, gaur egun baliabide tekniko hauen erabilerak ziurtatzen duen osotasunaren bermea gutxitu edo demeritu gabe. Hau dela eta, komenigarri bezala hartzen da erreforman tartekadura meritatuaren iraunketa, lan judiziala errazteko erabilgarria izateagatik eta prozesuaren bermeetan inolako gutxiagotzea suposatzeagatik, ezta ere bere biderapenean beharrezkoa ez den eragozpena edo duplikazioa.

147. artikuluari dagokionez, jardunaldien dokumentazioan, irudi eta soinuaren grabaketa eta erreproduzio sistemen bitartez, idazkari judizialaren eskusartzea modu garrantzitsu batean aldatzen du, zeren eta soinu eta irudiaren grabazio eta erreproduziorako gaitasuna duen euskarrian erregistraturik geratzen diren jardunaldietan idazkari judizialaren agerpena desenkusatzen du (“auzitegiaren aurrean ospatzen diren bistetan, audientzietan eta aurkezteetan”). Hauen gainean fedea emango du, beti ere grabatutakoaren benekotasuna eta zuzentasuna edo osotasuna bermatzeko beharrezkoak diren baliabide teknologikoak dituen eina, hala nola onartutako sinadura elektronikoa edo berme berdina ematen dituen eta legearekin konforme dagoen beste segurtasun sistema bat izan daitezkeen bezala. Hau da, onartutako sinadura elektronikoa edo ematen duen segurtasun bermearen arabera beste prozedimendu tekniko antzeko batek, idazkari judizialak fedea eman behar duen jardunaldian aurriz aurre egotea edo ez erabakiko du, baizik eta sistema informatiko baten bitartez ordezkaturia izango dela. Honen ondorioz, idazkari judizialaren eskusartzen suposizio hauetan, erreala izateari uzten dio,



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

birtualean bihurtzeko.

Erreformak barne sartzen duen nobedade garrantzitsu hau aztertzeko, abenduak 19ko 59/2003 Legeko 3. artikulua partzialki erreproduzitzea ez dago sobran, berau sinadura elektronikoa duena eta “*Sinadura elektronikoa, eta elektronikoki sinatutako dokumentuak*” titulua duena:

“1. Sinadura elektronikoa forma elektronikoa duten datuen multzo bat da, beste batzuekin kontsignaturik edo hauekin elkarkideturik sinatzailearen identifikazio bide bezala erabiliak izan daitezkeelarik.

2. Aurreratutako sinadura elektronikoa, sinatzailea identifikatzea baimentzen du eta sinatutako datuen edozein ondorengo aldaketa somatu dezake. Sinatzaileari modu bakun batean lotzen da eta baita ere gordetzen dituen datuei. Sinatzaileak bere kontrol eskusibo azpian mantendu ditzazkeen bitartekoen bidez sortua izan da.

3. Onartutako sinadura elektronikotzat hartzen da onartutako ziurtagiri batean oinarritzen den aurreratutako sinadura elektronikoa eta sinadura sorketarako segurua den dispositibo baten bitartez sortarazten dena.

4. Onartutako sinadura elektronikoak, modu elektronikoan ezarritako datuekiko, eskuz idatzitako sinadurak, paperean ezarriak daudenekiko duen balio berdina izango du.

5. Dokumentu elektroniko bezala, itxura elektronikoa duen edozein izaerako informazioa hartzen da, formato jakin baten arabera euskarri elektroniko batean artxibatutakoa eta identifikatzeko



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

gaitasuna duena eta tratamendu ezberdindua.

Aurreko parrafoan ezarritakoa alde batera utzi gabe, dokumentu elektronikoa batek, dokumentu publiko edo dokumentu administratibo izaera izan dezan, hurrenez hurren, ondoren azaltzen den atalaren a) edo b) letretan ezarritakoa bete beharko du eta, kasua denean, aplikagarria den arau espezifikoan.

6. Dokumentu elektronikoa ondoren azaltzen den hauen euskarri izango da:

a) Dokumentu publikoak, fede publikoa, judiziala, notariarena edo administratiboa emateko gaitasuna legalki hartua duten funtzionarioek elektronikoki sinatuak egoteagatik, beti ere kasu bakoitzean Legeak eskatzen dituen baldintzekin duten eskumenen arloan jarduten badute.

b) Funtzionario edo langile publikoek beraien funtzio publikoen jartutean eta legislazio espezifikoarekin bat, elektronikoki igorritako eta sinatutako dokumentuak.

c) Pribatuak diren dokumentuak.

7. Aurreko atal honek aipatzen dituen dokumentuek beraien dagokien izaerari egokitzen den balio eta eraginkortasun juridikoa izango dute, aplikagarria izango zaien legislazioarekin konforme. (...)"

Ikusi daitekeen bezala “[L]egeak, onartutako sinadura elektronikoari, modu elektronikoan ezarritako datuekiko, eskuz idatzitako sinadurarekin baliokidetasun funtzionala ematen dio”, sinadura elektronikoari buruzkoa den Legearen EM lak hala ezartzen duen bezala. Honek, idazkari judizialaren onartutako sinadura elektronikoak, kasu honetan, epaiketa grabatua geratzen den dokumentu elektronikoan, sinaduraren estanpaketa birtuala sinesgarria den



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

era batean irudikatua geratzen den modua eragiten duela esan nahi du; baina ez du esan nahi sinadura, dokumentu elektronikoari benekotasuna emateko bide bezala, bere *prius*-arekin nahasi beharra dagoela, jakinean, grabaketa objektu den jardunaldi beraren existentziarekin. Grabaketa dokumentazio bide bat besterik ez da baina ezin daiteke nahastu dokumentatzen den jardunaldiarekin, sinadura, dokumentuaren prestaketa prozedimenduaren estadioetako bat izanik; arrazoi guzti hauek direla eta, dokumentatzen den jardunaldiaan fedemaile judizialaren presentzia fisikoa, modu arduratsu batean “grabatutakoaren edo erreproduzitutakoaren benekotasuna eta osotasuna edo zuzentasuna bermatzea” ahal izateko ezinbestekoa dirudi (BJLOko 453. art.), zeren eta begi bistakoa dirudi fede publikoaren gordelaria idazkari judizialaren irudia izatea eta ez ordezkatzailerik den mekanismo bat, zeren beste modu batean izatekotan, harek ezin izango luke era oso batean funtzio honetan ihardun, BJLOko 453. artikulua hala ezartzen duen bezala.

B) Autoen eraketa eta berreraiketa

a) *Autoen eraketaren*

148. artikulua, Bulego Judizial berriaren antolaketan, idazkari judizialari dagozkion ahalmenen jardute esparrua modu argiago batean erakusten duen idazketa berri bat jasotzen du, bere bitartez antolatutakoaren garapena eta materializazio soileko funtzioen aurrean, eta aplikagarria zaien arategi organiko eta estatutarioarekin konforme, Zerbitzu Prozesal Arrunt ezberdinetan eta norako zentroetan barne sartutako Justizia Administrazioaren zerbitzuan dauden Kidego ezberdinetako funtzionarioen eskumenekoak direnak. Azertuz, aipatutako manuak ezartzen duen bezala, idazkari judizialek “autoen beharreko eraketaren aurrean erantzule” izango dira, hala nola, “horien iraunketa eta babeserako” erantzule izango diren bezala (147. artikulua, presentzia juzial aurrean ospatutako ahozko jardunaldien grabazioaren euskarri bezala balio duen dokumentu elektronikoaren zaintzari buruzkoa ere bada). Azken



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

erantzukizun hau, Kudeaketa Artxibategi Judizialaren zuzendaritza bere ahalmenen jardutean gauzatuko dituzte, non, horretarako ezarritako arautegiarekin ados (*vid.* artxibategi judizialen modernizazioari buruzkoa den uztailak 18ko 937/2003 Errege Dekretua), biderapena amaitu gabe duten auto eta espediente haiek gorde eta zainduko dituzte, epaile edo magistratu txostenlariaren menpe, edo auzitegia osatzen duten beste magistratu batzuen menpe egongo liritezkeenean salbu (BJLOko 458.1 art.). Dudagabekoa da Aurreproiektuan kontenplaturik agertzen den erreformak artikuluan indarrean dagoen idazketa hobetzen duela eta zentzu material batean, hauen eraketa, iraunketa eta zaintza zuzenki ematen diela, berau Bulego Judizialaren antolaketa organizatibo berriarekin bateraezina dena.

PZLan idazkari judizialen ebazpenak dekretu forman barne sartzearen ondorio bezala, 213 bis artikulua “dekretu liburua” sortzen du, bertan behin betiko izaera dutenak sartzeko, aurreko artikulua epai eta autoentzat ezartzen duen irizpide berdina jarraituz.

Idazkari judizialaren eskumenekoak diren autoen zaintzan erantzukizun partikularren manifestazioak dira 359 eta 383 artikulua. 359. artikulua ezagutza judizialaren froga baten jardutea dokumentatzen duten grabazioen iraunketarekin erlazioan eta 383. artikulua, aldaketak izan ez ditzazten, filmazio, grabaketa eta antzerako bestelako tresna bitartez hartutako hitz, irudi eta soinuetan oinarritzen diren froga bitartekoen iraunketari buruzkoa.

b) *Autoen berreraiketa*

Jardueren dokumentazioari estu lotutako prozedimendu bat PZLan aurreikusitako autoen berreraiketarena da. Prozedimendu hau bideratzeko eskumena ia bere osotasunean “desagerpena edo ebaketa gertatu izan deneko Bulego judizialaren” idazkari judizialari ematen zaio (PZL 232.1 art.), jarduerak nola berreraikiak geratu beharko diren erabakiaren erantzuna soilik



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

auzitegiarena izanik, edo kasua denean, horri buruz aldean erabateko desadostasuna edo ezadostasun partziala egonik, berreraiketa ezinezkoa izanik (234 eta 235 artikulua).

C) Jardueren egiaztapena

BJLOaren 453.2 artikulua bitartez idazkari judizialei gordea, jardura judizialen egiaztapen edo testigantzen igorketa, aintinatik beraien eskuetan uzten zen funtzio bat da.

Bereziki, adibide gisa, erreformak eragindu dituen artikulua aipatu daitezke; ebazpenen testigantza igorketa (PZL 495.2 art.), autoen testigantza igorketa (PZL 527.2 art), hartzekodunen juntako aktaren igorketa (Lege Konkurtsaleko 126.1 art.); kausako partikularren testigantza igorketa eta bidalketa (PKLko 36. art.); epaiaren eta boto partikularren egiaztapena (PKLko 859. art.) eta Justizia Ministerioari bere bidalketarako estradizio pasiboko gainan ebazpenen igorketa (Estradizio Pasiboko Legeko 17 eta 18.1 artikulua).

Berrikuntza bezala, 140.1 artikulua aldaketak BJLOko 476. f) artikulua PZLra itzultzen du, zeinek igorketa Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoaren eskuetan, idazkari judizialaren ezagutzaz, autoetan ezartzen diren idatzi eta dokumentuen kopia arruntak uzten dituenak.

1.1.3. ONDASUN ETA EFEKTUEN ZAINZA

Idazkari judizialen eskuetan uzten den funtzio honi buruzkoa da BJLOko 459. artikulua, zeinek bai deposituen gainean “helburu horretarako dauden lokaletan”, bai “helburu horretarako zehazten diren instituzioetan” deposituaren gainean bere erantzukizuna aitortzen du.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

Lehen aukera hori kontuan hartuz, batez ere zigor arloko prozesuan azaltzen dena, leku honetara LECr 367 ter. 1 artikuluko efektu judizialen zaintza ekartzea egokitzen hartzen da – agindu judizialaren eskuetan jarritako ondasun guzti haiek, zigor arloko prozedimendu baten zehar enbargatu, bahitu edo hartutakoak hain zuzen ere -, erreformak, eginkizuna, idazkari judizialaren eskuetan espresuki uzteko aldatzen duena, indarrean dagoen testuan gertatzen den bezala “organo judizialaren” eskuetan utzi beharrean.

1.1.4. KONTU EMATEA

BJLOko 455. artikuluan espresuki aurrez ikusten den funtzio honi buruz, zeinen burutzeak lege prozesalean ezartzen diren hitzetara jotzen duen, PZLko erreformak kontuaren ematea epaile eta magistratuei, hauen pronunziamentuek eskatzen dituzten eskakizun edo nahietan mugatzen du, presentzia judizialek kanpo baimenduak izan liratezkeen aktetan, hala nola jardueren egoerari buruz informatzea epea bukatzean ebazpen bat eman beharra dutenean eta tramitazio soila ez diren idazkarien ebazpenei buruz ere informatzea (178.1 eta 2 artikulua). Tramitazio soila ez diren idazkarien ebazpenei buruz ari den kontu ematearen azken eduki hau, kontuan hartu beharra legoke jardueren egoeraren informazio hutsa helburu bezala duen edo, gainera, kasua izanik, aurrekari prozesal bezala balioko lukeen, auzitegia, idazkariak hitzartutakoa aldatzeko baldintzetan egonean. Iadanik adierazi den bezala, komenigarria litzateke auzitegiak, Legearen barruan kontrol eginkizun hau betetzeko hau gaituko lukeen tresna bat ipiniko balu.

178. artikulua berdinaren 3. atalean, idazkari judizialarekiko, Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko funtzionarioen kargu kontu ematea aurreikusten du, bereziki, biderapen edo tramitazioak legearen edo arau prozesalen interpretazio bat eskatzen dutenean, alde batera utzi gabe, horretarako errekerituak izango liratezkeenean organo judizialaren titularra



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

informatzea.

Beste alde batetik, idazkari judizialaren kontu ematearen indarrean dagoen ordezkari gaitasuna desagertzen da 178.3. artikuluan azaltzen den bezala, auzitegiko funtzionario baten alde edo epaitegi baten alde.

Aldaketa objektu diren kontu emate jardueren adibideak dira ondoren azaltzen diren hauek: datuen ematea ez burutzeko pertsona edo entitateen alegazioak eta ejekutatuaren ondasun eta eskubideei buruko dokumentuak (PZLko 591.1 art.); bulego judizialean bideratzen diren eta pilaketagarriak diren prozesuak (LJCA 38.2 art.); bere onarpena erabakitze eskaeraren aurkezpena (LPLko 81.3 art.); epai gauzaketan idazkari judizialak eskatuko lukeen ematea edo elkarlaguntza ez betetzeko, organismo tributarioek inbokatutako oinarrizko eskubideekiko arrazoi legalak edo errespetu arrazoiak (PKLko 989.2 art.).

1.1.5. IDAZKARI JUDIZIALEN FUNTZIOAK BETEPEN PROZESUAN ETA KAUTELAZKO NEURRIETAN

Aparteko aipamen bat merezi du erreformak duen funtsezko alde batek, hain zuzen ere, betepen prozesuan, idazkari judizialak lortzen duen protagonismo berriaren eragina duena dena.

A) Erreformaren norako orokorrak

Bere egunean, Kontseilua, Justiziaren Liburu Zuriaren bitartez, betepen eginkizuna idazkari judizialen eskuetan uztearen alde agertu ziren. Bere momentuan esan zen bezala,

“Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia argi eta garbi, idazkari



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

judizialen funtzioak berdefinitzearen alde jartzen da. Antolaketa prozesalean funtzio berriak eman behar zaizkie, hala nola, bere jatorrian borondatezko jurisdikzionalakoak diren espedienteen ebazpena eta betepen jarduera diren bezala. Era honetan, betepena aginduz, epaileak dagokion ebazpena behin eman ondoren, betepenak duen edozein jarduera idazkariak burutu beharko du, jardute edo betepen hori epaileari itzuliz, soilik, eskubideen gainean erabakiren bat eskatuko lukeen arazoren bat emango balitz (...)"

PZLaren Aurreproiektuarekiko bere Txostenean ere ondorengo hau esan zen:

"Botere Judizialaren Kontseilu Nagusi honen irizpidea da, borondatezkoa den jurisdikzio (...) eta betepen gaian bereziki, idazkari Judizialari, autonomoa den eduki erabakigarria izango luketen ebazpenak hartzeko gaitasuna eman beharko litzaiokeela. Guzti hau Gonbaratutako Zuzenbidean ezartzen denarekin parekatuta (Portugal, Alemania, Austria) eta irailak 16ko 12 Europar Kontseiluaren Gomendioarekin (1986), zeinen bitartez, Epaileen lan gainkarga gutxitzea ahalegintzen den, epaileei emandako jarduera ez jurisdikzionalak murriztuz. Guzti hau, noski, epaile edo auzitegiaren aurrean egokiak diren errekurtsioak alde batera utzi gabe."

Hau dela eta, Aurreproiektuan egiten den betepen prozesuaren erreformak orokorrean aldekoa den erantzun bat merezi du, zeren eta, BJLOeko 456.3.a) artikuluan ezartzen denarekin bat, PZLko III Liburuko aldaketa sakon bat gauzatzeari ekiten dio, argitasunez idazkari judizialek berain esku hartu ditzazketen eskumenak, epaile eta auzitegientzat gorderik geratu behar diren beste haiengandik mugatzea ahaleginduz.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

Erreformako oinarrizko egitura, erreformak “betepen agindu orokorra” deitzen duena, hala nola dagokion komunikazioa, emateko eskumena auzitegiaren eskuetan uztekin hasten da, helburu horretarako eskatzen den betepenaren jarduera zehatz eta beharrezkoen erabakia idazkari judizialaren eskuetan geratuz, zein neurri batean, epaile eta auzitegietatik aldetzen den, “betepenaren erantzukizuna duen idazkari judiziala” formula berriaren ardura izanik eta zerbitzu orokor batera lotua.

PZLko 517.2 artikulua, gaur egun eskusiboki auzitegi zuzendua izango diren bi titulu exekutibo berri gehitzen du: alde batetik, idazkari judizialak hartzen dituen ebazpenak daude, zeintzuk prozesuan lortutako hitzarmen judizialak eta akordioak onartu edo homologatzen dituzten (3. zenbakia); eta, beste alde batetik, idazkari judizialek hartutako gainontzeko dokumentu eta ebazpenak, zeintzuk PZLak edo beste lege baten bitarteko disposizioagatik, betepena aparejaturik daramatenak (9. zenbakia). Bi titulu exekutibo hauetan oinarritzen den jardute exekutiboa judizialak diren titulu exekutiboaren epe amaitze berdinerara lotua dago (518. art.); era berean, 548. artikuluko betepenaren itzarote epea, idazkari judizialaren exekutagarriak diren ebazpenetara luzatzen da.

545.1 artikulua bere idazketa berrian, betepen agindu orokorra eta honen komunikazioa duen autoa emateko eskumena izango duenak, lehen auzialdian gaia ezagutu zuen auzitegia edo hitzarmena edo akordioa homologatu edo onartu zuen auzitegia izango dela ezartzen du.

Kontuan hartuz 1881 PZLko 471. artikulua erreformaren bitartez, informatzen ari garen Aurreproiektuak Lehen Auzialdiko Epaitegiko idazkari judizialari bateratasun jardunaldian lortutako akordioaren onarpena dagokiola ezartzen duela eta Lege bereko 476. artikuluekin bat, bateratasun jardunaldian hitzartutakoa, bateratasun hori bideratua izan zeneko Epaitegi



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

berean eta titulu judizialen gauzatzerako ezarritako biderapenen bidez egingo dela ezartzen duela, zuzena da PZLko 545. artikulua bere lehen atalaren azken tartekaduran, ondorengo hau erabakitzea: “betepen agindu orokorra eta berdinen komunikazioa duen autoa emateko, gaia lehen auzialdian ezagutu zuen auzitegiak edo hitzarmena edo akordioa homologatu edo onartua izan zen auzitegiak eskumena izango duela”, horrela, adostasuna, auzitegiaren bitartez baino, idazkari judizialaren bidez onartua izateko aukera posible izanik.

545 artikulua, 4. eta 5. atalak, auzitegiak hartu behar dituen ebazpenen banaketa eta idazkari judizialaren eskuetan uzten diren gaiak erabakitzen ditu, auzitegiak, ondorengo ebazpen hauek auto forman hartuko dituela ezarriz:

1goa) Betepen agindu orokorra dutenak, zeinen bitartez hau bera onartu eta erabakitzen den.

2.a) Arrazoi prozesalean edo funtsezkoan oinarritzen den azken betepenarekiko jazarketa erabakitzen dituztenak.

3.a) Domeinu terzeriak erabakitzen dituztenak.

4.a) PZLak aipatzen dituen beste haiek.

Bere aldetik, idazkari judizialaren erantzukizun izango dira:

1go) Exekutatuaren ondasunen zehaztapena, zeintzuetara betepenaren komunikazioa luzatu beharko den.

2.) Komunikazioaren eraginkortasunerako beharrezkoak diren neurri guztien hartzea, 589 eta 590 artikuluetan ezarritakoarekin bat, beharrezkoak izango liratezkeen jakite patrimonial bideak antolatuz.

3.) Exekutantearen eskubidearen guztizko betetzea lortzeko laguntza emango duten neurri exekutibo zehatzen hartzea.

Orokorrean esateko, manuan marrazten den funtzioen banaketa zuzena eta egokitzat hartzen da, behar den bezala BJLOko 456.3.a) artikulua



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

espiritua bilduz, zeinek betepena, idazkari judizialari ematen dio “epaile eta magistratuei gordeta egoteagatik, lege prozesalak salbuesten dituzten eskumen haiek salbu”.

Funtzioen banaketa eskema arrunt honetatik aurrera, erreformak beharrezko egokitzapena eskatzen duten manu haiek ikutzen doa, egia bada ere batzuetan, aldaketa hatzematze orokorrarekin idazkariak prozesuaren antolaketarako emanak dituen gaitasunak zehaztera mugatzen dela, bai prozesu deklaratioetan baita betepen prozesuetan ere, adibide bezala, bisten seinalapen gaian (560. art.), edo legaldi erabakiorrak diren kasuetan betepenaren etenaldia, orokorrean zordunak betepenarekiko bere jazarketa planteatzen duenean (556.3, 557.2, 568.2 – epaituaren konkurtso egoeraren notifikazioaren ostean – eta 695.2 artikulua).

Bestalde, kritikoki hausnartu beharra dago, idazkari judizialei erreformak ematen dizkien eskumen zehatzak, soilik prozedimentalean dituztela ondorioak, juridiko-materialak diren erlazio edo egoerak eragintzeko, azken onarpenaren ondorio bezala beharturik burutzen diren ondasunen titularitate berria bezala. Alderantziz, beste egoera batzuetan, zuzena den modu batean, erreformak titularitatea eragiten duten erabakiak auzitegiaren eskuetan uzten jarraitzen du, domeinuaren terzeriarekin gertatzen den bezala, betepen prozesuan, ondasun eta eskubideen titularitatea eragiten duten erabaki guztien tratamendu koherente bat gomendatzen duena.

Idazkariaren ahalmen erabakiorraren ondorio bezala, bera izango da bere ebazpenen gauzaketaren manamenduak berezko agintearen bitartez igorriko dituenak, Ondasunaren Erregistroan eragina izan dezaten helburuarekin [vgr., ondasunaren transmisioa onartzen duen dekretuaren testigantza sortzen duen manua, gauzaketa komenio suposizioetan eta pertsona edo espezializatutako entitateak direla eta burututakoa (642.2)].



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

B) Pilaketa betepen prozesuetan

555. artikuluko 1 eta 2 atalekin ados, betepen pilaketa hitzartzea idazkari judicialaren eskuetan utziko da, bai pilaketa objektiboa, ofiziozkoa edo aldearen eskakizunaren ondoriozkoa, bai pilaketa subjektiboa, suposizio honetan soilik aldearen eskakizunaren ondorioz ematen dena.

C) Astrikozioen inposaketa

Aurreproiektuak, arau bezala, idazkariari transferitzen dio, dekretu bitartez, ondoren adierazten diren suposizio hauetan, ejekutatuari astrikzio edo isun beharkorrak inposatzeko gaitasuna:

- 1) Betepenaren zenbatekoaren kargu egiteko ondasunen eta eskubideen manifestazio errekerimendua alde batera uzten duenean (589. art.).
- 2) Ordainketaren administrazioan, administratzailearen gaitasunen jardutea galarazi edo oztopatzen duenean (676.3 art.).
- 3) Zerbait ez egitera zigortua dagoenak, epaia haustean gaizki egindakoa desegiten ez duen bitartean (710.1 art.).
- 4) Dagozkien kopuru ordainketa betebeharrak, ezkontide edo gurasoek, behin eta berriro betetzen ez dituztenean (776.1goa artikulua).

Idazkariari betepenaren jestio aseguratio guztiak hartzea dagokion bitartean, legeak betetzeaileari inposatutako betebeharrak baten ez betetzearen aurrean, ez legoke ezer esaterik bera izatean egoki ikusten dituen akordio zigortzaileak espresuki hartzen dituenak, nahiz eta ezin daiteke ahaztu, astrikzioen inposaketa, betepen prozesuaren barruan datorren izaera deklaratio duen gertakari baten aurrekaririk datorrela. Hau, 711.1 artikulua aurreikusitako suposizioarentzat horrela frogatzen duen bezala "titulu exekutiboan ezartzen diren eta guztiz pertsonala den egitatearen prezioa edo



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

kontralaguntza kontuan hartuko da eta, bertan ezarriko ez balira edo gaizki egindakoa desgiteari buruz ariko balitz, kontuan hartuko da era berean jokaera horiei merkatuan emango zaien diru kostea” (711.1 art.).

Hala eta guztiz ere, erreformak osorik ez die transferitzen zigortzailea den gaitasun hau idazkari judizialei, baizik eta suposizio batzuetan, autoritate judizialaren boterepean mantentzen du: idazkari judizialak, beraien boterepean dituzten dokumentu eta datuen ematea pertsona eta entitateei eskatzen dienean, hauek, eskakizun hori bete ez dutenean arrazoi legalak edo oinarrizko eskubideekiko errespetua aitxaki bezala jarriz (591.2 art.), ordainketarako administrazioan, administratzailearen gaitasunen jardutea galarazi edo oztapatzen duena, exekutadua ez denean, baizik eta hirugarren pertsona bat (676.3 art.), edo exekutaduari presa sartzen zaionean, oso pertsonala den egitate baten zigorraren konplimenduarekiko (709.1 art.). Bere aldetik, LJCAn ere, astrikzioak inposatzeko gaitasuna dutenak epaileak edo auzitegiak dira (48.7 eta 112 artikulua).

Jurisdikzionala den eskumen honek, 711.1 artikulua aldaketaren zentzua desegokia bihurtzen du, zeinek izaera orokorraz (“aurreko artikuluetan aurrez ikusitako isunetarako”) isunen zenbatekoaren zehaztapena idazkari judizialaren esku uzten du dekretu bitartez, zeren eta ez da zentzuduna balioa auzitegiak ez zehaztea.

Zigor hauen ezken kontrol judizialari dagokionez, atseginez bermatua geratzen da 589.3 artikulua azken atalak, idazkariaren ebazpen hauen aurka, betepena ezagutzen duen auzitegiaren aurrean reposizio errekurtsioak eta ondorengo berrikustapenak leku izango duela ezartzeagatik.

591. artikulua, bere aldetik, exekutadua ez diren pertsona eta entitate ezberdinen betepen jardueretan elkarlan betebeharra arautzean, ez betetze kasua emango balitz, aparteko analisi bat merezi duen erregimen juridiko bat



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

ezarzen du. Lehenik esaten da aipatutako pertsona edo entitate horiek beraien boterepean izango luketen dokumentu edo datuen ematea ez betetzeko arrazoi legalak edo oinarrizko eskubideekiko errespetu arrazoiak aitxakitzat jarriko balute, idazkari judizialak auzitegia egitate honetaz informatuko duela, honek egoki ikusten duena erabaki dezan; disposizio hau zuzena da, zeren hirugarren pertsonen eskubideen behin behineko eragitea inbokatuz, edo legaltasun kuestioak, kuestioa ebaztea organo jurisdikzionalaren eskumen eskusiboko funtzioa da.

591.3. artikuluan aurrez ikusten diren errekurtsoen erregimenari buruz, BJLOko VII Liburuaren V Titulura igortzen duena, bidalketa BJLOko 557. artikuluan ezarritakoaren bitartez dator behartua (“[k]asu jakin hauentzat lege prozesalean aurreikusitako zuzenketa berezietakoren bat egoki litzatekeenean, inposatua izango den moduari buruz eta erabili ahal izango diren errekurtsoen gainean, aurreko bi artikuluek finkatzen dutena aplikatuko da”).

D) Dirudun betepena

a) *Neurri exekutiboak.- Ondasunen bahitura*

Behin betepen agindu orokorra eta betepen komunikazioa duen autoa eman ondoren (551.1 art., *infra* ikusiko dena), 551. artikuluko 3. atal berriak, 545.4. artikuluekin bat datorrena, orduan idazkari judizialak dekretu bat emango duela ezartzen du, erreposizioan eta berrikusketan errekurritu ahal izango dena eta ondoren azaltzen den garrantzizko eduki hau duena:

“1go. Egokitzen hartuko liratezkeen neurri exekutibo konkretuak, ondasunen bahitura posible izango balitz barne.”

Neurri exekutibo hauekin zerikusian, ondasunen bahituretaz orokorki mintzatzen diren artikuluen erreforma nabarmentzen da, non aipamena,



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

idazkari judizialaren gainean egiten da: 581.1 art. - zordunari, ordain eskariari arretarik ez emateren ostean, diru betepenean bahitura – eta 592.1 art. - aldeek hitzartutakoarekiko menpetasuna bahitu beharreko ondasunen gainean eta, hau ezean, bahiturak zuzentzen dituzten irizpideekiko menpetasuna-.

“2. Lege honetako 589 eta 590 artikuluetan aurreikusitakoarekin konforme, egoki diren exekutatuaren ondasunen lokalizazio eta ikerketa neurriak.”

589.1 eta 3 artikulua, betepenaren zenbatekoaren kargu egiteko nahikoak ondasun eta eskubideak manifestatzeko, idazkari nagusiak exekutatuari eskaera egitea aurreikusten du, eskaera horri behar bezalako erantzuna ez ematearen kasuan, beharkorrek diren izunak ezartzeko aukera izanik. Egileak, betepenaren amaierarako behar adina diren exekutantearen ondasunak adierazi ahal ezin dituenean, idazkari judiziala exekutanteak adierazten dizkion entitate finantziari, organismo eta erregistro publiko eta pertsona fisiko eta juridikoetatik exekutanteari buruzko informazio patrimoniala jasotzera behartu ahal izango du (590. art.).

Eta “3. Zordunari egin beharko zaion ordain eskariaren edukia, legeak eskari hau egingo lukeen kasu haietan.”

Idazkari judizialaren beste eskuduntza batzuk ondorengo hauek izango dira:

-Kreditu, aurrezki edo finantziazio entitateetan zabalduko kontuetan bahitutako soberakin zenbatekoen gordetzea agindu (621.2 art.).

-Etekin eta irabazien bahiketaren berme bezala administrazio juridikoa hitzartu (622.2 eta 3 art.).

-Bahitutako ondasun mugikorren gordelari judiziala aukeratu eta izendatu (626.2 eta 4 artikulua); berorri ondasunen erakusketa eta ematea agindu (627.1 art.) eta karguaren bere aldaketa hitzartu (627.1 art.).



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

-Erregistrora, mugikorrek ez diren ondasun edo erregistroan izen ematea posible den beste ondasun edo eskubideen bahiketaren alde aurretiko anotazioarako manamendua askatu eta bidali (629.1 art.).

-Interesatuen artean akordio bat existitzen denean, enpresa administrazio judizialaren irizpideak ezarri – beste kasu batzuetan, “betepen agindu orokorra” eman zuen auzitegiak hartuko du erabakia – (631.1 art.); artekariaren izendapenari ekin (631.2 art.); idazkari judizialari enpresan edo honetatik beste batzuetan, partizipazioak saldu edo gehitzeko baimena eman, mugikorrek ez diren ondasunak edo idazkari berak, beraien izaera edo garrantziagatik espresuki adieraziko lituzkeen beste edozein ondasun (623. art.); administratzaile judizialari boterea eman eta exekutadunari administrazioan eten dadin eskatu (633.1 art.); eta administratzailearen ekintzei buruz (633.1 art.) eta harek aurkeztuko duen justifikatutako kontuaren aurrean egindako oposizioari (633.3 art.) buruzko bestelako eritziak konpondu.

Soldata eta errenten bahiketarekin zerikusian, 607. artikuluari 7. atal berri bat eransten zaio, zeinek exekutanteak ezartzen duen kontuan, bahitutako soldata eta errenten zenbatekoaren emate zuzenaren aukera zabaltzen duen, idazkari judiziala, hiru hilabetero, bidalitako eta jasotako zenbatekoen gainean informatua izan beharko delarik (607.7 eta 621.3 artikulua).

Idazkari judiziala izango da izaera orokorraz bahiketaren hobekuntza, gutxitzea edo aldaketa erabakiko duena (612.2 eta 3 art.); domeinu terzeria baten onarpenaren aurrean, bahiketaren hobekuntza erabakiko duena (598.3 art.); berbahiketaren bermean dauden neurrien hartzea erabakiko duena (610.3 art.) eta gainontzekoaren bahiketa aginduko duena (611 art.).

b) *Ezinbesteko burutzea*

Gai honetan, erreformak funtzio exekutiboan jardutea idazkari judizialaren



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

aldera jotzen du:

1go) Bahitutako ondasun mota jakinen ejekutantearen *emate zuzena* hitzartzen du (634. art.).

2.) Bahituak izan diren *ekintzen salmenta eta giza-partehartze beste era batzuk* agintzen ditu (635.1 art.).

3.) *Aldeen eta interesatuen artean egokitutako bahituak izan diren ondasunen egite motak* onartzen ditu (636.1 art.).

4.) Bahitutako ondasunaren *egite hitzarmena* onartzen du (artikuluaren errotuluak, beraz, "auzitegia" ez du zertan aipatu behar), hitzarmenaren helburuarekiko egitearen etenaldiarekin eta hitzartutakoaren konplimendua egiaztatzen denean, egitearen auzietendura ondasun berdinarekiko (640.3 eta 4 artikulua).

5.) *Pertsonako edo espezializatutako entitateko bahitutako ondasunaren egitea* eta berau nola bete behar den baldintzak hitzartzen ditu (641.1 eta 3 art.), eta ekintza onartzen du (641.4 eta 642.2 artikulua).

6.) Subasta eragiten duen erreformaren atalak, oraindik are zehatzagoa izan behar duen aipua eskatzen du, ondasunen beharrezko egitearen medio bezala.

Aurreproiektuak baliabide informatiko eta telematikoen erabilera bultzatzen du; 649.2 artikulua, "ahalik eta egiterik onena lortzeko" helburuarekin, idazkari judizialaren zuzendaritzapean, behar diren baliabide teknikoak existitu eina, norgehiagoka elektronikoaren bitartez subastaren ekintza osatu ahal izatea aurreikusten du.

Idazkari judiziala izango da zein:

-Errematearen onarpena onartu edo atzera botatzen duena (650.1 eta 4 artikulua – ondasun mugikorren subasta -, 670.1 eta 4 artikulua – ondasun mugiezinen subasta – eta 673 artikulua – aldibereko subasta -), behin



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

errematearen onarpena egin eta prezioa ezarri ondoren, adjudikazio dekretua emanaz (650.6 – mugikorrek – eta 670.8 – mugiezinak – artikulua).

-Bahiketaren altxamendua hitzartzen duena subastan inolako eskaintzailerik ez legokenean eta akreedoreak ere ondasunen adjudikazioa eskatzen ez duenean (651. art.) eta bai enkantean aritzeko osatuak izan diren deposituen helburuari buruz erabakitzen duenean (652.1 art.) eta baita ere subastaren porrot egitea eragin zuten tratularien deposituei buruz erabakitzen duenean (653.2 art.).

Mugiezinak diren subasta bezala, ondorengo hauentzat izango du eskumen:

-Manamendua Ondasunaren Erregistratzaileari libratzeko eskumena, subastatuko den ondasun mugiezinaren domeinu eta kargen egiaztapena Epaitegiari bidali diezaion (656.1 art.); manamendua 144 LH etarako igortzeko eskumena (Erregistroan ezarri, hirugarren baten aurrean aldean arteko egindako guztiaren edo hitzamenaren eragina izan dezan, aurreko betekizun hipotekario baten eraginkortasuna aldatu edo suntsitu ahal dezan) (657.2 art.); betetzen ari den zergaren ostean inskribatutako eskubideen titularren bitartez egindako ordaina, kredituaren zenbatekoa, interes eta kostak eta egilearen eskubideen ordezkapena Erregistroan konstatatua geratu dadin manamendua egiteko eskubidea (659.3 art.); 107.12. LH artikulua aipatzen duen hipoteka ordezkatzeko subastatua izan den ondasun mugiezin baten tratulariaren onarpen dekretuaren testigantza emateko eskubidea (prozedura judicial batean subastatutako mugiezinaren gainean tratulariaren eskubidearen hipoteka, behin tratulariaren prezioa asebate ondoren eta domeinua tratulariaren aldera inskribatu ondoren) (670.6); Erregistroan izen ematea egiteko, subastatutako ondasun mugiezinaren adjudikazio dekretuaren testigantza emateko eskubidea (674.1 art.); eta erremateak edo adjudikazioak sortu luketen zergaren anotazioaren edo izen ematearen ezeztapen edo ondoren emango liratezkeen izen emate eta anotazio guztien ezeztapen manamendua emateko eskubidea



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

(674.2 art.).

-Bahiketa altxatzeko eskubidea erregistratzailearen egiaztapenetik, bahitutako ondasuna hirugarren pertsona baten izenean inskribatua dagoela ematen denean (658 art.), eta baita ere subasta hutsik geratzen denean eta akreedoreak ondasunen adjudikazioa eskatzen ez duenean (671 art.).

-Bahitutako ondasun mugiezinaren egitea geldierazteko eskubidea, kargen eta zergen balioak, ondasun zehatz horrentzat finkatutakoa berdindu edo gainditzen duenean (666.2 art.).

-Subastan lortutako batuketak destinatzeko eskubidea (672.1 eta 2 art.).

-Subasta ospakizuna aldiberean agintzeko eskubidea (673 art.).

-Errematearen objektu den mugiezinaren hartzailearen jaurtaldia hitzartzeko eskubidea, auzitegiak, harek han geratzeko eskumenik ez duela erabakitzen duenean (675.2 art.);

Hipotekatuak edo bahituak dauden ondasunei buruzko betepenaren bereizgarritasunen artean, idazkari judizialaren eskumen bezala ondorengo hauek adierazi daitezke:

-Bahitutako ondasunen edo hipotekatutako tresnen depositua eta artekariaren izendapena agindu (687.1 eta 2 art.).

-Betepenaren amaiera hitzartu, Erregistratzailearen egiaztapenetik ematen bada, beterazten ari den hipoteka existitzen ez dela edo kitatua izan dela (688.3 art.).

-Akreedoreak, finka edo hipotekatutako ondasuna administratu dezan ezarri (690.2 art.) eta administratzailearen kontuak onartu (690.3 art.).

-Betetzen ari den ondasunaren askatasuna eta betepen prozedimenduaren amaiera hitzartu, zordunak edo hirugarren pertsona batek egindako ordainaren ostean (693.3 art.).

Aurrekoarekin koerlatiboki, legislazio hipotekarioak, “adjudikazio autoen” aipamenak “adjudikazio dekretuengatik” ordezkatzeko ditu (LH 20. art.) eta



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

“erremate edo adjudikazio autoa”, “erremate edo adjudikazio dekretuagatik”, hauek, finkaren izen ematea praktikatzeko edo tratulari edo adjudikatzaillearen aldekoa den emandako eskubidea praktikatzeko nahikoak diren titulu bezala (LH 133. art.) eta betepena eragindu zuen hipotekaren eta ondorengo karga guztien ezeztapenerako (LH 134. art.).

7.) *Ordainketarako administrazioa* hitzartzen du (676.2 art.), aurkezten diren kontuak onartu edo zuzentzen ditu (PZL 678.2 art.) eta administrazioaren bitartez betetzaileak bere eskubidearen asebetetzea lortzen ez duenean amaiera ematen dio, orduan, beste ondasun batzuen beharrezko betepena hitzartuz (680.3 art.)

Ondasunen betepen aurreko forma batzuekin bat dator peritu tasatzaileen izendapena bahitutako ondasunen baloraziorako – edo peritazioaren kargu egiteko behartuak dauden entitateei, pertsona egokiaren izendapena eskatzea – (638 art.), eta tasazio efektuetarako, bahituak izan diren ondasunen balorazioaren behin betiko finkapena (639.4 art.).

Diruzko betepen gaian erreformaren aurreko panorama behin azaldu ondoren, errematearen onarpena idazkariaren eskuetan uzten duela ikusten da, betetako ondasunen titularitate berria eragitean, begi bistakoa den eraginkortasun juridiko-material bat daraman erabakia hain zuzen ere. Jakina den bezala, bateratasunez betepen prozesuan ematen dena betetzailearen nahiaren ordezkapena da, Estatuaren nahiarengatik, betetzailearen kobruaren eskubidea asetzeko bere ondarea erabiltzeko orduan geldi dagoena. Hau dela eta, ordezkapen hori, zeinen gailurra beharrezko diru betepenean, errematearen adjudikazio ekintzan aurkitzen den, auzitegiaren esku egon beharra du, berriz ere diogu, juridiko-material arloan dituen bere eraginak direla eta, eta, kasuan denean, publizitate erregistralean eta trafikiko juridikoaren segurtasunean proiektio garrantzitsu bat izanik.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

Beste alde batetik eta hemen mantentzen denaren adibide gisa, adierazgarria suertatzen da Aurreproiektuak, erabakiak hartzeko orduan, jurisdikzionala den atribuzioa mantentzea, diruzkoa ez den betepenean, borondatezko deklarazioa emantzat izatea, ebazpen judicial edo ebazpen arbitral tinkoaren indarrean, kondenatuak eman ez duenean (708.1 art.). Auzitegiaren eskusartze honen oinarri juridikoa, errematearen onarpenean idazkari judicialaren eskusartzearen berdina da: betetzailearen eskusartzearen botere publikoa, juridiko-materialak diren erlazio eta egoera esparruan, gardentasunez egindako jarduera baten egitean ordezkatzeta. Hau dela eta, konponbide juridikoa, bi inositutuek konpartitzen duten erabakiaren izaera jurisdikzionalaren aurrean, berdina izan beharko luke.

E) Diruzkoa ez den betepena

Betepen honetan, idazkari judicialari dagokio zigorraren eraginkortasuna segurtatzeko egoki diren berme neurriak hitzartzea, diru kopuru batetik ezberdina den gauza egin, ez egin edo emateko errekerimenduak ezingo balu berehalako konplimendua izan, hala nola betepen mota honetan hitzartutako bahiketara iristea, behin behineko ordezeko ordainketen ordaina eta betepen kostuak ziurtatzeko nahikoa den garantia ematen baldin bada (700. art.).

a) *Gauzak emateko betebeharraren betepena*

Erreformatik hurrengo funtzio hauek ematen dizkio idazkari judicialari:

-Beharreko gauza betetzailearen eskuetan jarri, horretarako beharrezkoak iruditzen zaizkion beharrak erabiliz, betetzaileak emandako epearen barruan ordaina eman ez duenean (701.2 art.).

-Egilea edo hirugarren pertsonak interrogatu ondasunaren egontokiari buruz informazioa eman dezaten, gauza dagoen lekua ezagutuko ez balitz edo



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

egon beharko lukeen lekuan topatzean aurkituko ez balitz (701.2 art.).

-Emate eskaria ez konplitzean, betetzailearen eskuetan jarri gauza orokorrak edo zehaztugabeak edo beharrezkoak direnak edo egilearen lepotik lortu ditzan eskubidea eman (702.1 art.).

-Tituluak ondasun mugiezin baten transmisioa edo ematea disposatuko lukeenean, zigorraren edukiaren arabera ekintzea agindu, tituluaren objektu ez diren legezkeen gauzen kentzerako egileari eskaria egin (703.1 art.) eta eman behar den jabetzako mugiezinaren deslekuraziorako epe bat eman (704.1 art.).

b) Egin eta ez egiteko betebeharren betepena

Idazkari judiziala da, titulu exekutiboak behartzen duen oso pertsonala ez den egitearen betebeharraren konplimendurako epea finkatzen duena (706.1 art.) eta oso pertsonala ez den eta hirugarren bati egiten zaion enkarguaren egitearen kostuaren baloraziorako perituak aukeratzen dituenak (706.2 art.).

c) Kalte eta galera, etekin eta errenta eta kontuen kontu emateen likidazioak

Erreformagatik, auzitegian gaur egun egon dauden Idazkari judizialaren eskuetan uzten diren funtzio berrien artean, betetzailearen bidez aurkeztutuako kalte eta galeren eta beraien zenbatekoaren arteko harremanaren onarpena aurkitzen da, zordunak bere adostasuna emango balu (714.1 art.); eta akreedorea ados agertzen bada, zordunak aurkezten duen bai etekin, errenta, erabilitasun edo beste edozein motako produktuen kontzeptuan zor den zenbatekoaren likidazioaren onarpena (719.1 art.), bai administrazio baten kontuen kontu ematearen lididazioaren onarpena (PZL 720 art.).



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

F) Kautelazko neurriak

Beharrezko betepena bera sistematikoki kokatzen den PZLaren III Liburu berdinean kokaturik, kautelazko neurriak ere funtzioen banaketa berriagatik eraginduak ikusten dira eta hauen eragimenean ondorengoak ematen dizkie idazkari judizialei:

-Eskatzaileari kosten zigorrarekin eta kautelazko neurriaren subjektu pasiboari sortutako kalte edo galerengatiko erantzukizun deklarazioarekin, eginak izango liratezkeen konplimendu jardunaldiak altxatu edo baliogabetu, eskariaren aurkezpenaren aurretik hitzartutako kautelazko neurriak, Legeak ezarritako premiazko epean haren aurkeztuko ez balu, eraginik gabe geratuko balira (730.2 art.).

-Kautelazko neurriak, tinkoa ez den baina behin betikoa den epaiaren bitartez, salatuaren barkamen kasuetan altxatu, salbu, errekurrenteak honen mantentimendua edo beste neurri baten hartzea eskatuko balu, kasua hau, zein ebazpena auzitegiaren eskuetan egongo da (744.1 art.); eta neurria altxatu, behin barkamen epaia tinkoa izandakoan (745. art.).

Ikusi daitekeen bezala, idazkari judizialaren eskusartze berria, neurriaren altxamendua nolabaiteko automatismo batekin jarduten den kasuetan sortzen da, kontrajarritako interesen neurri bat beharrezkoa balitz, auzitegia izango da erabakiaren ardura izango duena. Puntu honetan nabarmendu beharra dago, beharrezko betepenerako Aurreproiektuak aurrez ikusten duenarekiko aurka eginez, erreforma objektu den 738.2 artikuluan, prebentziozko bahiketaren kautelazko neurriaren hobekuntza, laburtze edo aldaketaren gainean hartzen diren erabakiak, auzitegiaren bidez hartuak izaten jarraitzen dutela. Hau, ziuraski, kautelazko neurrien material baldintzen bateraketari buruzko epaiketa (*fumus boni iuris y periculum in mora* (cfr. 728 art.)), neurrien eskatzaile eta subjektu pasiboari kontrajarritako interesen zuhertasunagatik jurisdikzionala



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

izan behar duelako, eta neurriek, juridiko materiala den esferaren gainean hedatzen dituzten eraginengatik. Alderantziz, beharrezko betepenean, organo betetzailari titulu exekutiboan aurrezarrira datozkio betepen hau garatzeko behar dituen terminoak.

Azkenik, eztabaidagarria da 730.2 artikulua, kostuen zigorra eta kalte eta galeren deklarazioa, idazkari judizialaren eskuetan uzten duen atalari dagokionez. Erabaki biek jurisdikzionala den esparruan jarraitu beharko lukete: lehena, izaera patrimoniala duen eskubide bat eragiten duelako, hala nola, kontrako aldeari kargu eginez gastu jakinen itzulketa zati baten eskubidea den bezala; eta bigarrena, oraindik argitasun gehiagorekin, ekstrakontraktuala den erantzukizun pronuntziamendu deklaratio bat esanahi du, kaltegarria den jardunaldia alde batera utzita ematen den prozesu baten gertaerarekin.

1.1.6. ERREFORMAKO TESTUAN BULEGO JUDIZIALAREN PRESENTZIA

Nahiz eta erreformak ez duen Bulego Judizialaren aspektu organikoak eta ezta inplantazio programa eragiten ere, erreformatutako manu bakoitza nabarmentzea larregi luzea litzateke, zeren eta manu asko dira, non biderapen zehatzetan, “Bulego judizialaren” itxura agertzen den, “epaile eta auzitegien jarduera jurisdikzionalari euskarri eta laguntza bezala laguntzen dien izaera instrumentala duen erakunde” bezala (BJLOko 435.1 art.).

Kasu batzuetan, aldaketa soilik lekuarena da, “Bulego judiziala” esaera erabiliz “idazkaritza”, “auzitegiko Idazkaritza” edo “Epaitegiko Idazkaritza” erabili beharrean (PZLko 90.2, 161.2, 212.1, 242.3, 330.1, 662.1, 668.1goa, 787.1, 799.3 eta 800.2 eta PKLko 976.1; LJCAko 38.2, 54.3, 94.1, 97.3 eta 100.5; LCko 96.4, 98, 108.2, 111.2, 113.1, 115.1 eta 3, 139.1, 142.1.2.a eta 2, 148.1 eta 2, 152 eta 185 artikulua) edo “Auzitegiko sedea” (PZL 129.1, 259.1 eta 2,



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

eta 645.1 artikulua). Beste aipamen batzuk ere erabiltzen dira, hala nola “Epaitegiko Bulegoa edo kausa ezagutuko lukeen Auzitegia”, “Epaitegiko lokala edo kausa ezagutuo lukeen Auzitegia” beharrean (PKLko 512. art.), edo “Lan arloko Epaitegiko Bulegoa” “Lan arloko Epaitegiko Idazkaritza” ordezkatzen (LPLko 110.3 art.).

Beste aldi batzuetan, aurreko esanahiarekin batera, “Bulego judizialari” egiten zaion aipamena, atribuzio konpetentzialeko erregimen berriarekin bat doa, zuzena ez den era batean, erabakia, iadanik ez dagoela ez epaile ezta auzitegiaren esku ere adierazteko, baizik eta idazkari judizialean, Bulego Judizialean parte den langilegoaren alderdi tekniko-prozesalean zuzendari gisa (cfr. BJLOko 457. art.). Ordezkapen bigarren mota honen adibide dira hurrengo aipamenen aldaketa: “Epaitegia” (PZLko 624.1.1goa; PKLko 784.5; LPLko 192.2 eta 4 artikulua), “Epaitegi edo Sekzioa” (PZL 69. art.), “Epaitegi edo auzitegia” edo “Epaile edo Auzitegia” PZLko 164 eta LJCAko 54.4 artikulua), “auztegi” edo “auztegiak” (PZLko 155.5, 157.3, 159.3, 171.1 eta 232.1 artikulua), “organo jurisdikzionala” edo “organo judiziala” (PZLko 173; LPLko 57.3, 253.2 eta 256.2 artikulua), “presentiza judizialera” (LPLko 20.3 art.), “Lehen Auzialdiko Epaitegia” (PZLko 170 art.), “Epaile instruktorea” (PKLko 446 art.) eta “Lan arloko Epaitegi eta Salak” (LPLko 47.1 art.).

Azkenik, aipatu beharra dago, Aurreproiektuak gaur egun, Justizia Administrazioaren zerbitzuan dauden funtzionarien Kidegoen izendapenekiko zenbait xedapen batzuk egokitzen dituela (adibide gisa, 100.2, 104, 149.5.a, 168.1 eta PZLko Igo Liburuko IV tituluaren V kapituluko izenpea; eta hipoteka mugikorra eta jabetza lekualdaketarik gabeko bahiturari buruzko Legeko 63. artikulua).



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

1.2. Adostasun jardunaldiko erreforma zehatzagoa

Aurreproiektuaren lehen artikulua, PZLko II Liburuaren I Tituluan adostasun jardunaldia arautzen duten zenbait artikuluen aldakeraz mintzatzen da, 1881ko otsailak 3ko Errege Dekretu bitartez onartua eta, jakina den bezala, 1/2000 Legeko xedapen indargabetzaile bakarraren bertutean – bere lehen ataleko bigarren salbuespena –momentuz bere indarrean egotea mantentzen duena, Borondatezko Jurisdikzioari buruzkoa den iragarritako Legea indarrean sartu arte.

Aurreproiektuak, gai honen gainean arautegi berri bat aurreratzea erabakitzen du, PZLko erreformak, idazkari judizialari ematen dioen gaitasun berriekin egokitzeko helburuarekin, dekretu bitartez, aldeek, prozesu beraren edo honek duen helburuaren gainean bere disposizio botereen eraginez, akordio eta hitzartutako konponbide bat lortzean, prozesu bat galarazi ahal dezan.

Partikular honen gainean, EM III ak BJLOko 456.3.c) artikulura igortzen da, 19/2003 Lege Organikoaren bitartez erreformatua eta idazkari judizialei, adostasun gaian, eskumen berezia ematen dioena, berezkoa duten bitartekotasun funtzio baten aritzea emanez, orain bai adostasun aurreprozesal zibilean, bai Prozedura Laboraleko Legearen erreforman adierazpena aurkitzen duena, zeinek era berean, idazkariaren eskuetan adostasun barneprosalen jardunaldien ospakizuna uzten duen. Hala eta guztiz ere, ulertu beharra dago, adostasun jardunaldia, modu zuzenean idazkari judizialari emango litzaiokeela, prozesuaren galarazpenari mugatua geratuko balitz, eskubideak eta betebeharrak, bakoitzarenak direnak edo hirugarren pertsoneri dagozkienak eragingo lituzkeen inolako berritasunik sartuko ez balitz, hau da, eskumen jurisdikzional eskusiboko material juridiko arloa eragingo ez balu; baina argi dago idazkari judizialaren bitartez egingo litzatekeen homologazio objektu izan daitekeenaren mugaketa hau, adostasunari eraginkortasuna kenduko liokela.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

Honi buruz oso garrantzitsua da nabarmentzea, auzigarria den objektuari buruzko hitzarmen judiziala, juridiko-materiala den berritasun bat inplikatzeko duen bezain pronto, eskuduntza judizialekoa izaten jarraitzen duela (19.2 art.).

Eraginduak izan diren artikulak 1881eko PZLko 460, 463tik 469ra, 471, 473 eta 476 artikulak izan dira, non, laburbilduta, jatorrizko erregulazioaren hurrengo aldaketa hauek barne sartzen diren:

1goa) Adostasuna, epaiketa aurretiko izaeraz, Lehen Auzialdiko Epaitegiaren idazkari judizialaren aurrean bultzatu ahal izango da, edo eskumenak dituen Bake Epailearen aurrean (460. art.), “salatuaren” helbidearen ezeztapenarekin lurralde laguntzazko foru bezala, bakarra izatera pasatzeko, pertsona juridikoen aurrean zuzentzen denean eskatzailearen helbidea foru konkurrentea den kasuetan salbu (463. art.). Bitartekotasun funtzioa, beraz, epailetik epaitegiko idazkariari transferitzen zaio, nahiz eta epaile ez jakinei jatorriz onartutako eskumena gorde.

Eta idazkari judizialen eskumenei buruz, erreformak beste batzuen artean, baliogabetasun, banaketa edo dibortzioari buruzkoak diren epaien pronuntziamenduen tinkotasun adierazpena ematen die, ihardespenak soilik neurriei buruzko pronuntziamenduak eragiten dituenean (774.5 art.), eta jardunaldien artxibo akordioa, banaketa edo dibortzio eskaera bi aldeen arteko adostasunarekin, ezkontideetakoren baten bitartez berronetsia izango ez balitz, auzitegiaren aurrean berrikustapen zuzeneko errekurtsioaz (777.3 art.).

C) Adingabeen babeserako gaien eta adopzioan baiezen beharra zehazteko prozedimendu gaien ebazpen administratiboekiko aurkakotasun prozedimendu berezia.

Idazkari judizialak adopzio txostenaren etenaldia hitzartuko du eta demanda aurkezteko beharrezko iruditzen zaion epea ezarriko du, gurasoek adopziorako, beraien baiezenaren beharra onartzea nahiko dutenean (781.1 art.); demanda edo eskaria aurkeztuko ez balitz, idazkari judizialak dekretua emango du “biderapena bukatutzat emanaz”, baina auzitegi aurrean berrikustapenean errekurragarria izango delarik (781.2).



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

1.6.2.ONDAREEN BANAKETA JUDIZIALAK

Prozesu berezi mota hauetan, gehien nabarmendu daitezkeen aldaketak heredentziaren banaketarako prozedimendu berezia eragiten dute.

Idazkari judiziala ondorengo hauek hitzartuko dituenak izango da:

-Banaketa operazioen onarpena eta interesatuen aurkakotasunik ez dagoenean protokolizazio ordenua igortzen duena (787.2 eta 4 art.).

-aurrejudizialtasun penal arrazoia dela eta, bere egunean hitzartutako prozedimenduaren etenaldiaren altxamendua (787.6 art.).

-Epaiketaren auzietendura eta interesatuak epaiketatik banatzen direnean eta horrela bien arteko adostasunarekin eskatzen denean, herederoen eskuetan ondareen jartzea (789. art.).

-Eskusartze judizialaren etenaldi akordioa, aldeen arteko adostasunez eskatua (796.2 art.).

-Manamendu bidalketa Jabegoaren Erregistrora herentziaren finken administrazioaren egoera eta administratzailearen izendapena agerian uzteko (797.3 art.); administratzailearen kontuen onarpena eta aldeen aurkakotasun egongo ez balitz, kauzioaren itzulketa (800.3 art.); administratzailearen ordainaren zehaztapena gai ezberdinengatiko sarrerei buruz eta gastuen abonamendu akordioa (804.1.4.a eta 2) eta administratzaile judizialaren menpekoak diren administratzaileen karguaren banaketaren baimena (805.2 art.).

Eskontza erregimen ekonomikoaren kitapenerako prozedimenduan, idazkari judiziala izango da zein kitapenari buruzko akordiorik ez balego, kontatzailea eta perituak izendatuko dituenak (810.5 art.).



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

1.6.3. MONITORIOZKO PROZESUA

MonitORIOZKO prozesuaren zenbatekoaren gorapenaz gain, hogeita hamar milatik ehun eta berrogeita hamar mila eurotara (*vid.* EM IV 812.1 art.), 815 artikulua 1go ataleko bigarren parrafoa aldatzen da hurrengo zentzu honetan: “[zordunari] egiten zaion ordainketa eskaria, soilik artikulua honetako hurrengo atalean arautzen den kasuan ediktu bitartez gauzatu ahal izango da”; bestalde, erreforma tautologikoa da eta ez dirudi indarrean dagoen erregimena berriztuko duenik, zeren 2. atal horretan hain zuzen ere 812.2.2. artikulua eskakizunetan bereiziki (inmueble urbanoen jabetza Komunitateen gastu orokorren kontzeptuan zor diren zenbatekoen ez ordainketa zertifikatu bitartez egiaztatzen diren zorrak), eta behin beste notifikazio bide batzuk porrot egin ondoren, hau 164. artikulua ezartzen duenarekin adostasunean gauzatuko dela aurreikusten da, “komunikazio ediktualari” buruzkoa berau.

Beste aldaketa batzuk jardunaldien artxibo akordioa eragiten dute, zordunak ordain eskakizunari kasu egiten badio (817. art.) eta baita jardunaldien auzietendurari eta akreedorearekiko kostuen zigorrari ere, zordunaren oposaketaren aurrean eskatzaileak nahiaren zenbatekoari legokiokeen epaiketa arruntaren eskaria jarriko ez baluke (818.2 art.) (kostuen zigorrari buruzkoa berau, iadanik azaldutakora igortzen gara).

1.6.4. ALDATZEN DIJOAN EPAIKETA

Erreformaren beste pasarte batzuekin ados, 825. artikulua idazkari judizialaren eskuetan auzitegiak betepena erabaki ostean bahiketaren uztartzea uzten du.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

1.6.5.EPAIKETA ZIBIL AZKARRAK

Epaiketa zibil azkarrak, zeinen bereizitasunak 19/2003 Lege Organikoaren hamabigarren xedapen osagarriko 3. atalaren bertutean PZLko bosgarren xedapen osagarrian arautzen diren, hurrengo puntu hauetan ikusten dira eraginduak:

1goa) Onarpen presupostu bezala ezartzen da demanda eta eskakizunetan, Berehalako Seinalapen Bulegoen aurrean presente dagoen alderdi demandatzaileak, demandatuaren helbide edo bizileku bat ezarriko duela, demandatuaren zitaziorako (2. atala).

2.a) 3. ataleko Lehen arauak aurreikusten duen demandaren tramite onarpenaren aurretik doazten jardunaldi aurretikoentzat (demanden erregistroa, banaketa, komunikazio jardunaldiak, eta abar) epe bat zehazten da (“bera aurkezten den egun berdinean edo, posible ez denean, hurrengo lan egunean”), eta momentu honetara aurreratzen da demanda edo eskariaren aurkezpenak hutsune prozesalen falta izatekotan, zuzenketa biderapena, gaur egun demanda edo eskariaren onarpen biderapenean kokatua, hortik ezabatzen delarik (3. ataleko Hirugarren araua).

3.a) Azkenik, subjektu errekerienteari ofiziozko abokatu eta prokuradorearen berehalako izendapena, demandaren onarpen autoa emateko momentuan delako zentzuan eskakizuna ezagutzen den edo ezagutzen ez den menpe egongo da: lehenengo kasuan, izendapen eskakizuna Lehen Auzialdiko Epaileak egingo du, demandaren onarpen auto berean; bigarren kasuan, idazkari judizialak burutuko du osteko dekretuan (3. ataleko Hirugarren araua).



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

1.7. Amankomuna den Zuzenbidearen prozesu zibilen barne sartzea

EM IVaren arabera

“aurrean dugun Lege honetaz baliatzen da Prozedura Zibileko Legera Espainian amankomunak diren eta oraintsu gai zibil eta merkataritza arloan transmugalak diren auziei buruzko prozesuak arautu dituzten bi erregelamenduen aplikazio zuzena lortzeko beharrezkoak diren arauak gehitzeko. Alde batetik, 2006ko abenduak 12ko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1896/2006 zenbakidun Erregelamendua (CE), zeinen bitartez europar prozesu monitorio bat ezartzen den eta, beste alde batetik, 2007ko uztailak 11ko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 861/2007 zenbakidun Erregelamendua (CE), zeinen bitartez zenbateko eskasa duen europar prozesu bat ezartzen den. Bi kasuetan ematen dituzten aurreikuspenak gure legislazio prozesalarekin lotzea lortu nahi izan da, helburu horretarako dauden funtsezko aspektuak zehaztuz. Beste batzuen artean, adibide gisa, eskumena duen epailearen erabakia legoke edo berrikustapen edo errekurtsio prozedimenduak, hala nola europar arau haien aurreikuspenak osatuko dituzten arau prozesal espainiarrak”.

Egokitze honetarako, PZLko azken xedapenak berriz zenbatzen dira, hogeita hirugarren zenbakia izatera *Espainian europar prozesu monitorioaren betepenari* buruzkoa dena pasatuz, 17 ataletan garatzen dena hain zuzen ere, bitartean, hogeita laugarren azken xedapen berriak helburu bezala *Espainian zenbateko eskasa duen europar prozesuaren betepena* izango duelarik, 12 ataletan banatua.

Europar bi prozesu hauek bat datoz Lehen Auzialdiko Epaitegiei



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

jurisdikzioa eta eskuduntza objektiboa ematean, bai Merkataritza arlokoa bai Lan arlokoa, kontuan izanik eskakizun objektu den diruzko kreditua – prozesu monitorioa - ondorioztatzen den harreman juridikoa edo prozesuaren helburua – zenbateko eskasa duen prozesua -. Eskuduntzari buruzko (lurraldekoa, exekutiboa) eta prozedimenduari buruzko gainontzeko gaien artetik gehiengoa, artikulatuari igorpenaz edo bakoitzari dagokion amankomunak diren Erregelamenduen Ondoko formularioei igorpenaz arautzen dira, hala nola aplikagarriak diren PZLko araei igorritz, zeren eta “[e]spresuki aurrean dugun Erregelamendu honetan barne sarturik ez dauden gai prozesal guztiak, Zuzenbide nazionalaren bitartez zuzenduak izango dira” (1896/2006 zenbakidun Erregelamenduaren 26. art.) eta “[a]urrean dugun Erregelamendu honen erabakiak alde batera utzi gabe, zenbateko eskasa duen europar prozesua, prozesu bera garatzen den Estatu kidearen legislazio prozesalaren bitartez arautuko da” (861/2007 zenbakidun Erregelamenduaren 19. art.). Guzti honetan no obsta Erregelamendu beren erabakien aplikazio zuzena (hurrenez hurren 33 eta 29 artikulak).

2.HIPOTEKA LEGEA

Aurreproiektuko hirugarren artikulak 1946ko otsailak 8ko Hipoteka Legearen artikulatuan xehetasun zenbait aldaketa barne sartzen ditu, zeintzuk bereziki, ebazpen judizialen betepen eta premiazko bidearen eraginkortasun gaian, PZLan idazkari judizialari onartzen zaizkion funtzioek eskatzen dituzten testuaren egokitze soilak diren, batzuk iadanik aipatuak izan direnak.

Arauketa berriak idazkarien dekretuak ebazpen judizialekin batera barne sartzen ditu, Jabegoaren Erregistrora sarrera izan dezaketen dokumentu bezala (*vid.* 134. art.). Idazkari judizialari Jabegoaren Erregistrora manamenduak igortzeko eskumena ematen zaio (*vid.* 57.2 eta 257 artikulak). Era berean, Erregistratzaitetik egiaztapenen igorketa eskatzeko gaitasuna emanten zaio



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

(*vid.* 229 eta 231 artikulua).

Aldaketa guzti hauek, PZLko aldaketaren ondorio zuzenak diren neurrian, iadanik adierazitako balorazioak merezi dute.

3. HIPOTEKA MOBILIARIOARI BURUZKO LEGEA ETA JABETZA LEKUALDAKETA GABEKO PRENDA

1954ko abenduak 16 datako Lege honen aldaketa Aurreproiektuaren laugarren artikuluan egiaztatzen da eta 18 eta 63 artikulua eragiten ditu, soilik PZLra aipamenak egokitzeko helburuz. 63. artikulua epailearen eskumena zehazten du, pignoraturako gauza aurkitzen den lekura sarrera baimentzeko, akreedoreak bere existentziaren eta orduko egoeraren egiaztapena eskatzean, era berean jectioa idazkari judizialaren bitartez eta Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoaren funtzionarioaren bidez burutuko dela zehaztuz.

4.LEGE ALDAKORRA ETA TXEKEKO LEGEA

Aurreproiektuko seigarren legeak uztailak 16ko 19/1985 Legea aldatzen du, bere 85.3 artikuluan, soilik, aldaketa letra baten kenketa edo desbideratzea salaturik eta honen salaketa onarturik, "Epaileak, idazkari judizialak libratua edo onartzaileari leku aldaketa" ematea erabakitzeke, ordaina gordetzea aginduz eta auzkezpenaren baldintzak epaitegiaren ezagutzapean jartzea aginduz. Gaur egun indarrean dagoen testuak zera esaten du: "epaileak emango du lekualdaketa". PZLarekin armonizatzeko xehetasun soil bat da besterik ez, prozesuaren antolaketa funtzioa eskuduntza judizialek banatuz.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

5. PATENTEEEN LEGEA

Aurreproiektuko zazpigarren artikulua Patenteei buruzkoa den martxoak 20ko 11/1996 Legeko 130 eta 139 artikulua aldatzen ditu.

130. artikulua antolaketa prozesalaren gainean aipamen soil bat besterik ez du egiten, zeinen birtutean epaileak eskatzaileari patenteak ematen duen eskubide eskusiboaren bortxaketan ondoriozta daitezkeen egitateen egiaztapenerako emandako aurretiko jestioen emaitzaren ezagutza ez diola emango "jakinaraziko dio", epaileak uste duenean ez dela susmagarria ikertutako bitartekoak esandako bortxaketa gauzatzeko balio izan dutela.

139. artikulua idazkari judizialari dekretu bitartez, ekintza nagusiaren jardute aurretik hartutako kautelazko neurri haiek altxatzeko eskumena ematen dio, bera, PZLko 730.2 artikulua aurreikusten duen epearen barruan ondorioztatzen ez bada. Kasu honetan, idazkari judizialak eskatzailea gauzatutako kalte eta aurreiritzien erantzulea dela adieraziko du, zeintzuk demanduari ordaindu beharko zaizkio, auzi jartzaileak emandako kauzioarekiko karguz, eta zeinen zenbatekoa 712. artikuluan ezarritakoarekin adostasunean eta PZLarekin bat datozenekin zehaztu beharko den. Egiazatu daitezkeen bezala, PZLko erregulaziora egokitzapen soil batetaz datza, hau dela eta honen gainean iadanik aurkeztuako hausnarketak iada hemen berresanak bezala hartu behar dira.

6. KONTRATAZIOAREN BALDINTZA OROKORREI BURUZKO LEGEA

Aurreproiektuko hamaikagarren artikulua Kontratazioaren Baldintza Orokorrei buruzkoa den apirilak 13ko 7/1998 Legea aldatzen du.

PZLan egindako aldaketekin bat, idazkari judizialari ematen zaio



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

Kontratazioaren Baldintza Orokorren Erregistrora manamenduak igortzeko funtzioa (22. art.).

7. LEGE KONKURTSALA

Aurreproiektuko hamalagarren artikulua Konkurtsala den uztailak 9ko 22/2003 Legeko zenbait artikulua aldatzen ditu, komunikazio, dokumentu lekualdaketa eta bisten seinalapen ekintzen materiak, idazkari judizialari dagozkien funtzioak zehazteko helburuarekin, 186.1 artikuluan ofiziazko bultzada prozesala aldarrikatuz.

Irudi eta soinuaren grabaketa eta erreproduzio sistemen bitartez egindako ekintzen dokumentazioari buruz, erreformatutako bosgarren azken xedapenak espresuki PZLak ezarritakora igortzen du. Idazkari judizialaren fede emateari buruz, jardunaldi jakin batzuetan idazkari judizialaren agerpen fisikoa bazterten den beste prozesu batzuen gainean esandakoarekin erlazioan, nabarmena gerta daiteke 126.5 artikulua aldatetan “[e]dozein dela kasua ere, (akreedoreen) bileran idazkari judizialaren presentzia ezinbestekoa izango dela enfatizatzea eta artikulua honetako 1go atalak aipatzen duen bileraren aktaren hedapena”.

197.1 artikuluan idazkari judizialen ebazpenen aurka doazten errekurtsioak arautzen dira, PZLan aurreikusten den erregimenarekiko igorpen espresu baten bitartez.

Gaien artean gehingoa epailean egoten jarraitzen dute, zordunaren esparru patrimonialen erabaki horiek dituen ondorio zuzenak direla eta, idazkari judizialaren erabakitasun autonomia beraz, PZLan aurreikusitakoarekin konparatuz gero murriztua ikusten delarik.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

Gainera, Aurreproiektua interesa duten beste gai batzuk aldatzeko ere baliagarri da:

1go) 8. artikuluko 6.ordinalak konkurtsoko epailearen jurisdikzio eskusiboa luzatzen du: bai konkurtsatutako sozietatearen zorren subsidiarioki erantzuleak diren kideen aurka jarritako zor sozialen erreklamazio ekintzekiko, zor horiek hartutako data edozein izanik ere, bai konkurtsatutako sozietatearen kideei diferitutako aportazio sozialen ordainketa edo prestazio edo laguntza gehigarrien konplimendua eskatzeko ekintzak bezala.

2.) Konkurtsuaren kalifikazioa dela eta eraginduak izan ahal liratezkeen edo konplize bezala deklaratuak diren pertsona haien ez azaltzeagatik oldarkeria deklarazioa seigarren atalean (konkurtsuaren kalifikazioa) (170.3 art.).

3.)198. artikulua bi atalekin handitzen da, Ebazpen Konkurtsalen Erregistroari buruzkoa, Justizia Ministerioaren eskuetan uzten den erreglamentarzioari hurrengo arau hauek gehituz: Jabegoaren, Merkataritza eta Espainiako Ondare Muebleen Erregistratzaileen Kidegoaren bitartez eta Kidegoaren kontura Erregistroaren kudeaketa Interneten portal baten bitartez; idazkari judizialak erregistratzaile merkantilari konkurtsatuari dagokion helbidearen igorketa edo manamenduko bikoizkiaren igorketa; eta aipatutako Kidegoari erregistratzaile merkantilen bitartez dagokion portalean bere eransketarako, zordun konkurtsatuei buruz ezagutzen dituzten eazpen judizialen edukiaren igorketa, nahiz eta hauek Erregistro Merkantilean idatzi ezin badira ere edo enpresariak ez diren pertsona naturaletaz ari bada. Erregistro Merkantil Zentralera ere lekualdaketa emango da entitate merkantilak badira eta Kidego berdineko ezgaien indize zentralizatura gaieztapena komunikatuko da.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

8.EPAIKETA LEGEA

Aurreproiektuko hamabosgarren artikulua abenduak 23ko 60/2003 Legeko 33, 42 eta 45 artikulua aldatzen ditu, idazkari judizialari prozedimenduaren antolaketa gaiari, lekukotasunen igorketa gaiari, komunikazio jardunaldi eta bisten seinapenean, funtzio jakin batzuk emateko. PZLko erreformarekin adostasunean dauden egokitzapenetaz ari garenez, ez dute merezi aipamen bereizirik egitea.

VI

ALDAKETAK ZIGOR ARLOKO ORDENUAN

1. PROZEDURA ZIBILEKO LEGEA

Aurreproiektuko bigarren artikulua 1882ko irailak 14ko Prozedura Zibileko Legearen aldaketari ekiten dio (PKL). Erreforma edo aldaketaren hatzemateari buruz, EM IVa "Prozedura Zibileko Legearen dauden arauen zaharkitzapenak, Bulego judizial gaiari partziala soilik den erreforma bat burutzera behartu duela baieztapenetik abiatzen da, aurrerago hau ikusi ahal izango delarik eta lege honen berrikustapen osoa eman dadin itxaroten, Prozedura Zibileko Legearekin 2000 urtean iadanik egin zen bezala, molde berri bati argia emateko". Beste alde batetik, azken honen ordezkotza kontuan hartuz, bere erreforma aztertzean espresatu berri diren hausnarketa asko honera ederki mugigarriak dira. Honi, gehitu beharra dago PZLko esparruan erreforma prozesal zehatzen arabera, gainontzeko lege prozesalean operatutako aldaketa baliokideei zenbait aipamen iadanik egin zaiela, beraz, hemen, egin beharreko hausnarketen hedapena mugatuagoa izango da.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

Azkenik, analisi objektu izango dira baita ere idazkari judizialaren funtzioen gai independenteak eta Bulego Judizialaren eginkizun berria eragiten dituzten erreformaren atal haiek.

1.1. Idazkari judizialen funtzioak

LECraren erreformak PZLko erreformak baino hatzemate mugatuago bat dauka. Hau, azken honek duen lege orokor prozesal izaerari bakarrik ez dio erantzuten, baizik eta zigor arloko prozesuan idazkari judizialak hartu ditzazkeen eskumenei ere, alde batera utzita prozesuaren antolaketa soilekoak direnak eta kautelazko neurri errealei dagozkienak eta pronuntziamendu zibilen gauzatzerako premiazkoa den bidea, guztiz mugatuak ikusten dira epailearen irudiak lortzen duen protagonismo handiagoarengatik, zeren eta hartzen diren erabakiak maiz prozesuaren aldeetako oinarrizko eskubideak eragiten dituzte, bereziki auziperatuarenak eta noiz behinka, hirugarren pertsonenak. Eskumen edo ahalmenak zabaltzeko aukerak eta idazkari judizialaren jardunaldia autonomia gehiagoz hornitzeko aukerak guzti hau dela eta, askoz mugatuagoak dira.

Esandakoari, PKL beraren antzinakotasuna gehitzen da, Aurreproiektuaren EMak aipatuko duena, lege prozesal handienetakoetatik lege berri batek ordezkatu ez duen bakarra izanik, Prozedura Zibileko Legearekin, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren erregulatzailerak den Legearekin eta Lan Prozedimendu Legearekin egin zen bezala. Aurreproiektuari gehitzen zaion zigor arloko erreforma prozesala nagusitasunez, indarrean dagoen PKLaren Bulego Judizial berriaren eskakizunekiko egokitzapenean oinarritzen da, funtsezko helburua, idazkari judizialek bere eskumen berrien hartzeak, zigor arloko jurisdikzioa erreformatik kanpo geratuzkotan, suertatuko lituzketen arazoak galaraztea izanik.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

Kasua edozein izanik ere, PKLaren artikulatu guztian zehar, Aurreproiektua idazkari judizialaren erantzukizunari xehetasun aipamenak barne sartzen joan da, jardunaldi prozesalen beharrezko antolaketan, jarduera zehatz bat idazkariari edo epaileari edo auzitegiari dagokiola zehaztean eman ahal izango liratezkeen hutsegite haiek galaraztea ahaleginduz. Batzuetan, PZLaren aldaketan erabilitako teknika legislatibo berdinarekin, erreforma inbertsonalak diren nolabaiteko formak ordezkatzera (“lekualdaketa emango da”) mugatzen da, esaldiko subjektuaren eransketa bitartez, ari den jardueraren praktika zeini dagokion dudarik geratu ez dadin. Kasu gehienetan, manuen aldaketak helburu bezala, komunikazio ekintzak, efektuen zaintza edo akta eta jestio bitartez ematen den dokumentazioa idazkari judizialari dagozkiela zehaztuta uztea du, gaur egun gertatzen den bezala.

Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrak, xehetasunezko erreforma hauek, nahiz eta inolako berritasun materialik gehitu ez arren, idazkari judizialen berezko jarduera esfera argitzera laguntza ematen dutela uste du eta aspektu horretan, ez dirudite premiagabekoak ezta erredundagarriak ere eta arrazoi hau dela eta, aldeko harrera bat merezi dute. Idazkari judizialaren funtzioen aldaketa bat errepresentatzen ez duten neurrian, Txosten honetan ez dira azterketa zehatz baten objektu izango, zein prozesuaren egituran nolabaiteko garrantzia izan duten aldaketak benetan barne sartu dituzten aspektu haietan arituko da.

Era berean nabarmentzea dago PKLeko erreforman, artikulatu multzo bat dago non erabakitzailea den subjektuaren gaineko isiltasuna edo erabiltzen diren formula inbertsonalak (*vgr.* “aginduko da...”), aldatuak diren, epaile edo epaitegiaren aipamen espresuaren barne sartzearekin (Sala, Auzientzia), seguraski, erabakiaren izaera jurisdikzionalaren gainean sortu liratezkeen edozein zalantza mota argitzeko baina honek, indarrean dagoen erregimenaren inolako benetazko aldaketarik suposatuta gabe.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

1.1.1.BULTZADA PROZESALA

A) Bisten seinalapenak eta etenaldiak

Prozesu zibilaren gainean ikusi den bezala, LECran jasotzen diren prozedimendu ezberdinen erregulazioan idazkari judizialari eman zaio ahozko epaiketa, bisten eta agerraldi saioen seinalamendu funtzioa, hala nola epaiketaren etenaldia emanez gero, epaiketa horren jarraipenerako egunaren seinalamendua.

Eta errekurtsio bistei dagokionez, perituen errekusazio gatazkak eta pronuntziamendu aurreko artikuluei buruz, idazkariari seinalamendu gaitasunaren emateak, bai Hausnarketa Orokorren IV. ataleko 4. zenbakian bai Prozedura Zibileko Legean seinalamenduaren erreformako analisisian iadanik azaldutako hausnarketa orokorrak merezi ditu.

B) Komunikazio ekintzak

Gai honetan, erreformak aldaketa minimoak sartzen ditu LECreko II. Liburuko VII. Tituluan, 166. artikulua gidatzen duena hain zuzen ere, eta zeini “[k]omunikazio ekintzak idazkari judizialaren zuzendaritzapean burutuko direla” agintzen duen lehen parrafo bat gehitzen zaion. Gaur egungo idazketak era orokor batean edo klausula estilo soil bezala organo judizialari ematen dizkion eskumenak, erreformak, soilik idazkari judizialei modu espres batean emateko horrela eskatzen duten artikulua haiek aldatzea aukeratzen du. Komunikazioaren erantzukizuna “dagokien funtzionarioei” aipamenak ere baditu. Tankera aldaketa hauen aurka ez dago ezer esaterik, behar bada idazketa berriak idazkari judizialaren jarrera komunikazio ekintzen betepenaren azken erantzule bezala, Bulego Judizialaren zuzendari gisa, argiagoa egitea, kasu bakoitzean komunikazio ekintzen materializazioa horretarako eskumena duen zerbitzu arrunteko funtzionarioak bete dezala zehaztuz besterik ez.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

178. artikulua, proiektatzen ari garen idazketan, era berean zigor arloko prozedimenduaren biderapenak sortzen dituen notifikazio, zitazio edo deien hartzaileak diren pertsonen kokapen jarduerak arautzen ditu, hauen helbidea ezezaguna denean. Manuaren bizimodu berriak helbide hori aurkitzeko beharrezkoa dena epaile instruktoreak aginduko duela ezartzen du eta interesatua aurkitzeko Polizia Judizialari mandatuaren erreferentzia mantendu ostean, epaile instruktorea interesatuak bere jarduera burutzen duen erregistro ofizialetara, profesionalen kidegoetara, erakunde edo enpresetara nahiz eta bere kokapena erraztu ahal izango luketen datuak existitu ahal diren erakunde eta organismoetara zuzendu ahal izango dela gehitzen du. Puntu honetan, erreformak, zigor arloko prozesuaren amaiera zuzen batentzat, edozein pertsonaren interbentzioa beharrezkoa denean, horren kokapena instrukzio jarduera bat osatzen duela onartzen du, beraz ofizioz eman beharra dagoela eta honen eskuduntza, eskusiboki, organo judizialarena dela.

C) Idazkari judizialaren ebazpenak eta errekursoak

a) *Ebazpenak*

Aurreproiektuak testu berri bezala Legeko testura eransten duen 144 bis artikuluan arautzen dira. Manua BJLOko 456.2 eta 4 artikuluan ezarritakoa lekuz aldatzera mugatzen da, jectio eta dekretuen artean bereiztuz, eta emango diren kasuak erregulatuz, motak, formak eta edukia araudi organikoan ezarritakoarekin bat, beraz, hasiera batean behintzat, bere garapenarekiko ez dago inolako eragozpenik jartzerik.

Osagarri bezala, erreformak 141. artikuluan ebazpen judizialeko edukiaren aldaketan sartzen da, bereziki helburua eta probidentzien motibazioa eraginduz, zeintzuk epaileari gordetako gai prozesalak eta auto forma eskatzen ez dituztenak erabakiko dituzte, zeintzuk “egokitzen hartzen denean, laburki



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

motibaktuak izan ahalgo dira inolako baldintzarekiko (formala) loturarik izan gabe”.

144 bis artikulua hiru hiru parrafoak zera ezartzen du “[d]ekretu deituko zaio idazkari judizialak ematen duen ebazpenari beharrezkoak edo egokia denean bere erabakia arrazoitzea”. Idazkariak zigor arloko ordenuan dekretua emango duen kasu haien determinazioa beraz, modu orokor batean, legeak espresuki ezartzen duen kasu haietan datza eta, benetan, bere erabakia arrazonatzea beharrezkoa edo egokia denean, zeren eta dekretua, motibazio zehatz bat eta banatutako eta zenbakitutako parrafoekin osatzen den estruktura bat eskatzen duen ebazpen mota bat da, egitate aurrekarietan, zuzenbide oinarrietan eta dispositibo aldean banatua, auto judizialekoaren antzekoa.

Egoki da oso, erreformak 161. artikuluan, idazkari judizialek, kasua denean, nolabaiteko kontzeptu ilunik argitzeko, hutsarteren bat ordezkatu eta ematen den oker garrantzitsuren bat zuzentzeko ahalmena izango dutela eranstea, jatorri judiziala duten ebazpenetarako legean aurreikusten diren hitz berdinetan. Era berean beharrezkoa zen komunikazio jarduerak erregulatzen dituzten manuetan idazkari judizialen ebazpenei aipamen zehatzen eransketa (175. art.), hauek emateko epeak (197, 204 eta 205 art.) eta berdinak errekurritzeko (211. art.).

b) *Errekurtsoak*

Idazkari judizialen ebazpenen ihardespen gaian, Aurreproiektuak X. Tituluari II. Kapitulu bat eransten dio, zeinek “Idazkari judizialen ebazpenen aurkako errekurtsoei buruz”ko izenpearekin bi artikulua gehitzen ditu (238 bis eta 238 ter).

Dekretuen errekurritasuna dela eta, eta alde batera utzi gabe guzti horiek ere erreposizioa izateko aukera (238 bis art.), ez da arau orokorrik



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

existitzen epaitegi aurrean berrikustapen errekurtsoren gainean, errekurritu den ebazpena, antolaketa jestio baten aurrean erreposizio errekurtsoa erabakitzen duen dekretua izango balitz kasuan salbu eta horrela izatekotan, berrikustapena posible izango da legeak espresuki horrela erabakitzen duenean (238 bis art.). Hutsune hau beteko ez balitz, aplikagarria izan beharko da errekurtsoen erregimen mugakorra PZLko dekretuen aurrean. Hau horrela geratzekotan, idazkariaren ebazpenen kontrol judiziala salbuespenera mugatua geratuko litzateke, araura baino eta hau ez da egokia zigor arloko prozesuan jokatzeko ari diren interesen garrantzia berezia kontuan izanik. Honetaz gain, kontuan hartu behar da baita, zigor arloko prozesua gidatzen duen printzipioa hain zuzen ere aurkakoa dela, ebazpen judizialen **errekurrigarritasun** orokorra eskatuz (vid. 218. art., zeinek auto judizialekin erlazioan, apelazioa ematen ez denean kexa onartzen du, edo laburtutako prozedimenduetarako, 766.1 art., errekurtsoa izan ezik ez dauden Epaille Instrukture edo Zigor arloko Epaillearen auto guztien aurka apelazioa onartzen duela). Ebazpenen errekurrigarritasunagatiko lege prozesalaren aurkerak argi eta garbi adierazten du bere biderapenean hartzen diren erabakien azertua indarberritzeko beharra eta idazkari judizialek hartutako ebazpenen errekurrigarritasun erregimenari objektiorik gabe aplikagarria den printzipio bat osatzen du.

Esandakoa kontuan hartuz, askoz egokiagozat hartzen da 238. ter artikuluak, legearen erabaki espresuagatik errekurtsoz izan ezik ez legozkeen idazkari judizialaren dekretu guztiak berrikustapenean errekurritzeko aukera kontuan hartzea.

Idazkari judizialek pronuntziamendu zibilen betepenerako eta benetako kautelazko neurrien burutzerako emandako ebazpenen aurrean errekurtsu erregimenari buruz, erreformako testu artikulatua 238. artikuluan PZLan aurreikusitako errekurtsu erregimenera igortzen da.

Idazkari judizialaren dekretuaren aurka jarritako berrikustapen errekurtsoa



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

erabaki behar duen epaile edo epaitegiaren erabakiari dagokionez, 238. ter artikuluak ondorengo hau esaten du:

“(...) aurka egiten ari zaion idazkari judizialaren dekretua berrerori den prozesuko fasean, eskumen funtzionala duen Epaile edo Auzitegi aurrean jarriko da (...)”

Aurreikuspen hau egokitzat hartzen da, zeren eta zigor arloko prozesuaren egitura kontuan hartzen du, non, gutxienez, auzilaburreko fase bat edo arau fase bat eta beste bat betea edo epaiketakoa bereizten dira, zeinen ezagutza organo jurisdikzional ezberdinei dagokie, jakina den bezala, eskuduntza funtzional irizpidea zuzenena bezala aurkeztuz.

1.1.2.FEDE EMATEA ETA JARDUERA JUDIZIALEN DOKUMENTAZIOA

Aurreproiektuak burututako erreforma prozesalaren berritasunetatik garrantzitsuenetariko bat, ahozko epaiketaren sekzioen garapena grabatua izateko bete beharraren sarrera da, zigor arloko prozesuari, bista zibilen dokumentaziorako den PZLko 187.1 artikuluan nagusi den araua erantsiz. 743. artikulua erreformatuak hurrengo garrantzia hau dauka:

“1. Ahozko epaiketaren sekzioen garapena soinu eta irudiaren grabaketa eta erreprodukziorako egoki den euskarrian erregistratuko da. Idazkari judizialak, grabaketari euskarri bezala balio izan dioen dokumentu elektronikoa zaindu beharko du. Aldeek, honen lepotik, grabaketa originalen kopia eskatu ahalgo die.

2. Beharrezkoak diren baliabide teknologikoak kontuan hartzen diren eintean, idazkari judizialak, onartutako sinadura elektronikoa edo legearekin adostasunean berme horiek eskaintzen dituen bestelako



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

segurtasun sistemaren erabileraren bitartez grabatutako edo erreproduzitutakoaren benekotasuna eta osotasun edo zuzentasuna bermatuko du. Kasu honetan, jardunaldiaren ospakizuna salan idazkari judizialaren presentzia izan gabe emango da eta horrela gauzatu den dokumentu elektronikoak helburu guzti horietarako akta osatuko du.

3. Aurreko atalean aurreikusitako berme mekanismoak ezin izango balira erabili, idazkari judizialak aktan, gutxienez, hurrengo datu hauek jarri beharko ditu; prozedimendu zenbakia eta mota; ospakizuneko lekua eta data; iraun duen denbora; jardunaldian egon den lagun kopurua; aldeen eskakizun eta proposamenak; frogen proposizio kasuan, pertinentzia deklarazioa eta hauen praktikaren ordena; epaileak edo auzitegiak hartzen dituen ebazpenak; hala nola euskarri horretan ezin izango litzatezkeen egoera eta gertakariak.

4. Artikulu honetan aurreikusitako erregistro baliabideak edozein kausa dela eta erabili ezingo liratezkeenean, idazkari judizialak jardunaldi bakoitzeko akta luzatuko du, bertan beharrezkoa den luzapen eta xehetasunez, praktikaturako frogaren funtsezko edukia, eragin eta gauzatutako eskakizunak eta erabakitako ebazpenak jasoz.

5. Artikulu honetako 3 eta 4 ataletan aurreikusitako akta prozedimendu informatikoen bitartez luzatuko da, jardunaldia ospatzen ari den salak baliabidea informatikorik ez duenean soilik izan ahalgo delarik eskuz idatzitakoa. Kasu hauetan, jardunaldia bukatzean idazkari judizialak akta irakurriko du bertan, egoki ikusiko balu, aldeek eskatzen dituzten zuzenketak eginez. Akta hau Auzitetiko Lehendakariak eta kideek, Fiskalak eta aldeen babesleek sinatuko dute.”



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

Artikulu honetara igortzen dira 788.6 eeta 791.3 artikulua – ahozko judizioa eta apelazio bista laburtutako prozedimenduan, hurrenez hurren -, 815 – partikularren aurka egindako irain eta kalumnia delituengatik ematen den prozedimendu bista – eta 972 – faltengatik ematen den epaiketa bista -.

Bistetara idazkari judizialaren ez agertzearen aurreikuspenean erreformatu edo aldatzen diren beste manu batzuk ere badaude: 786.2 artikulua, epaiketa hasieran salaketa eta defentsa idatzien irakurketan idazkariaren aipamena ezabatzen duena; 787 artikulua, epaile edo auzitegiko lehendakariari hauzipekoa adostasunaren ondorioei buruz informatzeko ematen duena, gaur egun idazkari judizialak garatzen duen funtzioa hain zuzen ere; eta 789.2 artikulua, *in voce* emandako epai kasuetan, aktan, epaia edo motibazio labur bat dokumentatzeko orduan, idazkari judizialaren fedeari aipua ezabatzen duena.

Supra esandakoarekin adostasunean, bista zibilen dokumentazioari buruz eta bistetara idazkari judizialaren ez agertzeari buruz hitzegiterakoan, azken puntu bezala gomendatu daiteke, zigor arloko epaiketetan irudi eta soinuaren grabaketa baliabide teknikoan erabilera derrigorren mandatu, horrela egokitzen izango balu, auzitegiaren aldetik, dagokion euskarrietan erregistratutaako guztiaren artetik, auzitegi horrentzat garrantzitsuena litzatekeen huraren idatzizko transkripzio bat autoakin elkartzeko eskakizun gaitasunaren aipamen batekin osatua izatea, berau ahalik eta eperik laburrenaren barruan. Aspektu partikular honetan, bista zibilen gaineko dokumentazioari buruz hitzegiterakoan iadanik adierazitakora igortzen gara.

Azkenik, dokumentazio funtzioarekin erlazioan, erreformak idazkari judizialaren eskusartzea eragiten du, hau da, iharduketetan garrantzia prozesala duten jardunaldi edo egitateen izatea uztea [vgr., deuseztatutako eragin judizialen ezaugarrien konstantzia (367 ter. 2 art.); ruedan



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

errekonozimendu baldintzena (369. art.); epailearen gaitasun ezareri buruzko galdeketa bitartean auzipetuaren gaitzespenarena – kasu hauetan “auziperatua ezingo dela (...) erantzuteaz desenkusatu” mantentzea eztabaidagarria izanik – (395 art.); auziperatuaren manifestaldien esana (397. art.); lekukoen galdera eta erantzunen eduki guztiarena (401. art.), deklaratzeko betebeharraren barkamenaren oharpenarena (416.1go art.) eta deitzen zaionean lekukoaren agertze betebeharrarena eta helbidean eman daitezkeen aldaketen ezagutzapean jartzearena, deskonplimendu kasurako oharpenekin (446. art.); aurretiko froga testifikalean erantzunena (448. art.); aldeek perituei jazartzen dizkieten hausnarketena (480. art.) eta korrespondentziaren zabaldua (588. art.)].

1.1.3.KAUTELAZKO NEURRI ERREALAK, PRONUNTZIAMENDU ZIBIL ETA KOSTUEN BEHARREZKO BETEPENA

Diruzko erantzukizunen segurtasunerako alde aurretiko bahiketa neurriaren betepenarekin erlazioan, erantzule zibilak diren bai inputatuarenak bai hirugarren pertsonenak, epaiaren, eta tasazio eta kostuen kobraketaren pronuntziamendu zibilen betepena, erreformak eskumena idazkari judizialari ematen dio, PZLan aipatutako gai hauen gainean egiten den erregulazioarekin bateratasunean.

Nabarmentzea merezi du 591. artikulua eman duen aukera: kaudimenaren betebeharra betetzat hartu daitekeelaren aukerarena hain zuzen ere, diru efektiboan edo iraupen ez jakina lukeen fidantza solidario bitartez eta kreditu erakunde bitartez edo elkarganako berme elkarte edo, epaile edo auzitegiaren ustetan, kasua denean, ari garen zenbatekoaren berehalako disponibilitatea bermatzen duen beste edozein medio bitartez igortzen den lehen eskakizunean ondaingarri den kausioa jasoko balitz, PZLan manu ezberdinetan gaur egun jasotzen den aurreikuspena berau.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

597. artikulua fidantza eraketa eskatzen duen autoaren notifikazioaren hurrengo egunean hau onartuko ez balitz, idazkari judiziala auzipetuaren ondasunen bahiketari ekingo diola ezartzen du, diruzko erantzukizunentzat ezarria izango litzatekeen zenbatekoa estaltzeko adinak adierazteko eskatuz.

598. artikulua ondasunen bahiketa ordenua zehazten du, PZLko 605 eta 606 artikuluen debekuei eta aipatutako Legeko 584. artikuluan ezarritakoari 592. artikulura igorritik. Ez dago ezer esaterik igorketa horien aurka, zeren eta segurtasun neurri hauen aplikazioa gidatu behar duen erregimen juridikoa argitzera laguntzen dute.

600. artikulua, 589. artikuluan aurreikusten diren kautelazko bahiketa autoaren betepenean ematen diren gainontzeko jardunaldiak, PZLko 738. artikuluko 2 eta 3 atalen bitartez zuzenduko direla ezartzen du (*vid.* igorketa egiten den akasdu idazketa), 597. artikuluan ondasunak adierazi ditzan prozesuari eginiko eskakizunaren gainean ezartzen den berezitasunarekin. PZLko 738. artikuluan 2. atari igorketa zuzena da, zeren eta lehen atalak kautelazko neurri zibilen hartzerako kausio aurretiko prestazioa eskatzen du, zigor arloko prozesuari ezinezko exportazioa duen eskakizuna hain zuzen ere, non auziperatuaren ondarea prozesuaren amaiera onerako eragitera zuzenduak dauden kautelazko neurri errealak Instrukzioko Epailereengatik ofizioz hartu behar dira, auzilaburreko jarduerari dagokion diruzko erantzukizunen segurtasun betebeharraren ondorio bazterrezina bezala – 299, *in fine* art. -.

Erantzukizun zibilen betepenerako, 989.2 artikulua idazkari judizialaren eskuetan uzten du betepen eraginetarako ikerketa patrimonialaren jarduerak zergazko organismoari gomendatzeko funtzioa.

Kostuei dagokienez, 242 eta 244 artikuluen aldaketak PZLra igortzen dute



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

gehiegizkoak izateagatik kostuen ihardespena eta gai honetako prozedimendu orokorra.

1.1.4.ALDEEN ESKUBIDE PROZESALEN BERMEAN DAUDEN FUNTZIOAK

Aurreproiektuak, zigor arloko prozesuan idazkari judizialari delituaren biktimaren eskubideen berme osagarri funtzio bat ematen dio. Seguraski artikulua hauen aldaketa Justiziaren Erreformatarako Estatu Hitzarmenaren 17. puntuan ezarritakoari aplikagarritasuna emateko helburuz egin da, zeinek zigor arloko prozedimenduaren esparruan, lehentasunezko helburu bezala ondorengo hau adierazten duena: “indarkeria izan duten delituen biktimen babes eta defentsa indartzea”, hala nola Justiziaren aurrean Herritarren Eskubide Kartan ezarritakoa, zeinek duen II idazpuruan ondorengo hau adierazten duen: “*ahulagoak direnak babesten dituen Justizia bat*”, zeinek “biktimek, beraien segurtasunean eragina izan ditzazketen ebazpen haien ezagutza eraginkor bat izan dezatela ziurtatuko duen, bereziki familia barruan ematen diren indarkeria kasuetan”. Puntu honetan, erreformak, delitu eta falta jakinen epaiketa arin eta berehalakoak eman daitezzen prozedimenduari buruzkoa den eta laburtutako prozedimenduaren aldaketarako den Prozedura Kriminaleko Legeko erreforma partzialari buruzkoa den urriak 24ko 38/2002 Legeak taiututako bidea jarraitzen du eta baita ere azaroak 25eko 15/2003 Lege Organikoan, Zigor Kodeko 1995eko azaroak 23ko 10/1995 Lege Organikoko aldaketari buruzkoa dena.

Idazkari judizialari inposatzen zaion informazioa emateko behar honen manifestaldiak dira 659 eta 785.5 artikuluen erreformak – biktima bai Prozesu arruntean baita prozesu laburrean ere, hurrenez hurren, ahozko epaiketaren data eta lekuari buruz informazioa ematea -; 761 – Prozesu laburrean ekintza eskaintza – eta 791.2 – apelazio bistari buruz biktima informatu -.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

Idazkari judizialaren eskuetan uzten da baita delituagatik modu zuzen batean irainduak edo kaltetuak izan direnei, hauen segurtasunean eraginik izan dezaketen exekuzio fasean berrerori diren eta zigor arloari buruzkoak diren hainbat ebazpenak komunikatzeko betebeharra (990 art.). Funtzio hauek idazkari judizialari emateak balorazio positibo bat merezi du.

Berme prozesalen laguntza material, eta bereziki babes eskubidearekin zerikusian, 797. artikuluko 3. atalera ondorengo hau esaten duen azken parrafo baten eransketak balorazio positibo bat merezi du baita ere:

“Babes eskubidearen jarduera bermatzeko, Epaileak, behin premiazkoak diren jectioei hasiera eman ostean, (defentsarako izendatua izan den abokatuari) atestatuaren kopiaren lekualdaketa ematea erabakiko du eta era berdinean, Guardiako Epaitegian eman diren edo emango diren hainbat ekintzenak.”

Manu hau ez da premiagabekoa. Nahiz eta abokatuak inputatuaren ordezkapen prozesala izan, zeini 118. artikulua ematen dioten estatusarekin adostasunez informatu behar zaion, “delitu baten inputazioa ondorioztatzen den edozein jarduera prozesalaren (...)” luzapenik egon gabe, soilik guardiako epaileak praktikan jartzen dituen jarduerak biltzen ez duen kontzeptua, baizik eta eragindu dituen atestatu poliziala baita eta prozedimenduan barne sartzen direnak, guardiako epaitegian ematen diren jarduerekin erlazioan, defentsako abokatuaren aldetik denbora errealean bere ezagutza izatea abokatu beraren kontraesanekoa den presentziarekin eta partehartzearekin bermatua geratzen da. Arrazoi hau dela eta erreformak bere zentzua hartzen du, zeren eta behin atestatu Poliziak Instrukzioko Epaileari eta fiskalari eman ostean, eta behin premiazkoak diren jectioak hasi eta gero, hau lehenengo, guardiako epaitegia jectioak praktikan jartzen hasi baino lehen, epaileak atestatuaren kopia inputatuaren abokatuari lekualdaketa ematea erabakiko du, eta gainera, baita ere eman diren gainontzeko jarduerak – hasierako autoaren aurretik



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

eztabaidagarria dena – edo guardiako epaitegian burutzen direnak. Hasierako momentu horretan atestatuaren irakurketak defentsako abokatuari guardiako epaitegian jectioen praktikarekiko aurretiko izaeraz, eta bereziki, inputatuaren deklarazioa hartzeko orduan, Polizia Judizialak defendatzen duen inplikazioa oinarritzen den terminoen nahikoa ezagutza batetara heltzea baimendu ahal izango dio, modu honetan eraginkorragoa izango den defentsa bat egin ahal izatea baimenduz. Osagarria den berme hau, beste alde batetik, ez litzateke murriztua geratu behar guardiako epaitegiaren aurrean premiazkoak diren jectioetara delitu jakinen prozedura arinetarako prozedimenduaren esparruan, non aipatu den manua sistematikoki kokatzen den lekua da, baizik eta gainontzeko prozeduren ezagutza berdin bat lortu beharko litzateke.

1.2. Deklarazio zigor-arloko prozesuen erreforma

Aurreproiektuan operatutako zigor arloko prozesuaren erreformak, idazkari judizialaren funtzio berriekin bereziki erlazonaturik ez dauden aldaketak testu legalean barne sartzeko aukeraz baliatu da, iadanik esan den bezala, ondoren ikusiak izango direnak, ahal den neurrian, Legearen sistematika jarraituz.

1.9.1. ZIGOR ARLOKO PROZESU ARRUNTA

A) Auzilaburreko fasea

448. artikulua alde zurreko froga testifikala “berehala” emateko eta “edozein dela kasua ere aldean kontradikzio aukera baieztatuz” eskatzeko aldatua izan da, eta honek aldekoa den epaiketa bat merezi du, kontuan hartzen dituen suposizioetan bere praktika hitzartzeko luzapenak inplikatzeko duen arriskua kontuan izanik.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

B) Erdiko fasea

Aurreproiektuari Kontseilu honek bere Txostenean 2005 urtean aurkeztutako legislazio prozesalaren erreformari buruz aditzera emandakoaren zentzu berean, erregulazio berria ematen zaio instrukzio eraginerako aldean sumarioaren lekualdaketa erregimen juridikoari, berau, 627. artikuluan aurreikusitakoa. EM IVaren arabera

“apirilak 17ko 66/89 zenbakidun Sententziatik aurrera finkatutako Auzitegi Konstituzionalaren doktrina bildu da, zeinek erdiko fasea deitzen den honetan zigor arloko prozesuan aldean oreka berrezartzea eskatzen duen. Horretarako, Prozedura Zibileko Legearen 627 artikuluan prozesatuaren defentsara kausaren leku aldaketa derrigorrezkoa egiten duen aldaketa bat barne sartu da, helburua sumarioaren ondorio autoaren gainean erabaki bat hartzea izanik, froga, ahozko epaiketaren zabaldura edo, kasua denean, kausaren auzietadura jestio berrien praktika eskatuz”.

Ezaguna den bezala, aipatutako manuak gaur egun, Instrukzio Epaitegitik datozen autoak epaitegian jaso ondoren eta honen aurrean aldean zitazioaren terminoa pasa eta gero, autoak fiskalari igaroko zaizkio, hiru egunetik jeitsiko ez den eta hamar egunetik igoko ez den tarte baterako, kausa, eskusartzea behar duen delitu bati buruzkoa bada, eta ondoren pertsonatu izan balu, kereilantearen prokuradoreari ondoren, zeintzuk idazki bitartez lagundua itzuliko duten, sumarioa bukatutzat eman duen behekoaren autoarekin konforme itzanik, edo jestio berrien praktika eskatuz; iritzia sumarioaren bukaera autoarekin adostasuna izango balu, Fiskaltzak eta kereilantearen prokuradoreak, egongo balitz, ahozko judizioaren edo auzietadura edozein motaren zabalkuntzari buruz beharrezkotzat hartuko luketena eskatuko dute. Indarrean dagoen arauak, ez du momentu batean ere prozesatuaren edo prozesatuen defentsaren baliokide den lekualdaketa prokuradori ematea esaten



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

eta honek akusazio eta defentsaren artean bistakoa den desegonkortasun bat eragiten du, zein eskakizun konstituzionalekin konforme dagoen testu legala osatzen duen interpretazio baten bitartez jurisprudentzia bidez konpentsatu behar izan dena.

Manuaren *secundum constitutionem* interpretazioa, apirilak 17ko 66/89 zenbakidun Epaitik abiatuz bateratzen den Konstituzio Auzitegiaren doktrina betez betebeharrekoa jazotzen da, zeinek hamabigarren oinarri juridikoan aldean oreka berrezartzea eskatzen du, non ondorengo hau adierazten da:

“Egon daitezkeen berme guztiak dituen prozesu bat izateko eskubidearen onarpenak, ondorioz, egiazki, aldean arteko desoreka alde batera uzteko asmoz, bai bata eta baita besteak ere, aukera berdinak eta alegazio, froga eta aurkaratze zamak edo kargak izatea dakar. Eskakizun edo exijentzia honek (zeinek, bertan garatzen den jarduera ikertzailearen berezko izaeragatik sumarioko fasean modulazio edo salbuespenak onartu ahal dituen) dudarik gabe, zigor arloko prozesuan, ahozko epaiketan eta frogaldi ekintzan, aurretiazko froga suposizio edo hipotesiak barne sartuta, garrantzia berezia hartzen du – 6.3.d) artikulua, Giza Eskubideen Europako Hitzarmena – baina, era berean, delituagatik ematen den prozeduraren erdiko fasea deitutakoan ere errespetatu behar da (martxoak 22ko 44/1985 gure Epaiak duen doktrinatik ondorioztatzen den bezala).

Hain zuzen ere, oraintsu aipatutako fase honek, ez du soilik zigorrezko uziaren antolaketa eta depurazio egokia baimenduko duen materiale bideratzailea osatzeko aukera emateko joera, baizik eta hau izango da ahozko judizioa hastea erabakitze beharrezkoak diren aurreikusitako hipotesiak aldi berean ematen diren edo ez finkatzen duen momentua. Eta auzipetuak daudenak aspektu batean



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

zein bestean dudarik gabeko interes bat dute, arrazoi hau dela eta, ezin daiteke horren esku-hartzea alde batera utzi. Kontuan hartu behar da, aldean idatziak ikusirik, hauek PKLko 627 artikulua biderapena dela medio adierazitakoak, zigor arlokoa den Auzitegi hainbat aukera zabaltzen dira, eta ez soilik eta ez derrigorrez ahozko judizioa hasteko erabakia.

Horrela, posible da, Auzitegiak, oraintsu aipatutako Legeko 631 artikuluaekin bat izanik, Instrukzioko Epailearen autoa ezeztatzea, honi, eginbide berrien praktiken prozesua eta antolaketa itzuliz; edo izan daiteke ere, eta oraindik Epailearen autoa konfirmatuz eta Sumarioa bukatutzat emanik, Auzitegia ez da geratzen alde salatzaileen ahozko judizioaren zabalkuntza eskakizunengatik lotetsia, zeren eta kontuan hartu behar da Auzitegiak, PZLko 645. artikuluaekin bat, artxibaketa erabaki dezakeela egitatea delitu bat ez dela erabakitzen badu, guzti hau aipatu den Lege prozesaleko 637.2 artikulua ezartzen duenarekin bat. Hau dela eta, eta Auzitegiak izan ditzazkeen aukera ezberdinak direla eta, horri buruz soilik salatzaileak diren aldeek alegatu ahal izatea, gaur egun errekurtsio-egileak direnak ezberdintasun egoera argi baten aurrean jartzen zituen, hauek beste aldean aurrean beraien argumentuak balioztatu ahal ezin izatean.

(...) Ba, PZLko 627 artikulua soilik eta espresuki Fiskaltzako instrukziorako autoen lekualdaketa aurrez ikusten badu eta bertaratu diren auzi-jartzaileei, ez du inolaz ere debekatzen (...) auzipetuei lekualdaketa ematea. Eta, 24.2 artikulua ezartzen duenaren arabera, PZLko 627. artikulua agindutakoa osatzea bidezko zen, aurrekonstituzional izaeradun araua, aipatu den artikulua konstituzionaletik ondorioztatutako bermeak dituen, aldean arteko arma berdintasuna barne sartzen duena eta, beraz, eta kasu



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA

honetan bereziki, Fiskaltzarako eta egongo balitz auzi-jartzailearentzat PZLko 627. artikuluan aurrez ikusten diren hitz berberetan prozesatuen lekualdaketa.

